

# Donostiako Udalaren euskara-planak

Egilea: Maddalen Acero Alustiza

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

<b>1 SARRERA</b> .....	<b>6</b>
<b>2 DONOSTIA ETA EUSKARA</b> .....	<b>8</b>
2.1 <u>DONOSTIA – DATU OROKORRAK</u> .....	9
2.1.1 Biztanleria.....	9
2.1.2 Enplegua.....	12
2.1.3 Donostiako Udala.....	15
2.1.4 Hezkuntza.....	17
2.2 <u>DONOSTIA ETA EUSKARA</u> .....	20
2.2.1 Hizkuntza-gaitasuna.....	20
2.2.2 Ama-hizkuntza.....	22
2.2.3 Hizkuntza-transmisioa.....	23
2.2.4 Etxeko erabilera.....	23
2.2.5 Euskararen aurrekontua udalean.....	24
2.2.6 Hezkuntza: matrikulazio-datuak.....	25
<b>3 DONOSTIA ETA EUSKARA-PLANAK</b> .....	<b>27</b>
3.1 <u>DONOSTIAKO EUSKARAREN PLAN OROKORRA</u> .....	28
3.1.1 Helburu orokorra.....	28
3.1.2 Helburu partzialak.....	28
3.1.3 Erronkak eta helburu zehatzak.....	28
3.1.3.1 Euskararen transmisioa.....	28
3.1.3.1.1 Irakaskuntza.....	28
3.1.3.1.2 Euskalduntze-alfabetatzea.....	29
3.1.3.1.3 Familia.....	29
3.1.3.2 Euskararen erabilera.....	29
3.1.3.2.1 Administrazioa.....	30
3.1.3.2.1.1 Udala eta erakunde autonomoak.....	30
3.1.3.2.1.2 Zuzenbide pribatuko entitate publikoak.....	30
3.1.3.2.2 Lan-mundua.....	30
3.1.3.2.3 Aisia.....	31

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

3.1.3.2.4 Kirola.....	31
3.1.3.3 Euskararen elikadura.....	31
3.1.3.3.1 Kulturgintza.....	31
3.1.3.3.2 Komunikabideak.....	32
3.1.3.3.3 Hizkuntza baliabideak eta korpusa.....	32
3.1.3.4 Euskararen motibazioa eta sustapena.....	33
3.1.3.4.1 Euskararen motibazioa eta sustapena.....	33
3.2 <u>EUSKARAREN EKIMEN ESTRATEGIKOAK</u> .....	34
3.2.1 Helburu orokorra.....	34
3.2.2 Helburuak, ekimenerako jarraibideak eta lehenetsitako ekintzak.....	34
3.2.2.1 Familia harremanak.....	34
3.2.2.2 Hezkuntza, ikerketa eta gazteria.....	35
3.2.2.2.1 Eskola irakaskuntza.....	35
3.2.2.2.2 Unibertsitatea.....	35
3.2.2.2.3 Gazteria.....	36
3.2.2.2.4 Prestakuntza.....	36
3.2.2.2.5 Helduen euskalduntze alfabetatzea.....	36
3.2.2.3 Herri administrazioa.....	36
3.2.2.3.1 Udal administrazioa.....	36
3.2.2.3.2 Beste administrazioak.....	37
3.2.2.4 Hedabideak eta kulturgintza.....	37
3.2.2.4.1 Prentsa, irratia eta telebista.....	38
3.2.2.4.2 Publizitatea.....	38
3.2.2.4.3 Zinea eta antzerkia.....	38
3.2.2.5 Lan mundua.....	39
3.2.2.5.1 Enpresa erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak.....	39
3.2.2.5.2 Enpresa pribatua.....	39
3.2.2.5.3 Enpresa publikoa.....	40
3.2.2.6 Teknologia eta telematika.....	40
3.2.2.7 Gizarte erakundeak, elkarte eta entitate herritarrak, kulturazkoak, ludikoak eta	

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

kiroletakoak.....	41
3.2.2.7.1 Kirol elkarteak.....	41
3.2.2.7.2 Aisialdiko elkarteak eta jarduera ludikoak.....	41
3.2.2.8 Euskara batuaren zabalpena eta azterketa soziolinguistikoa.....	42
3.2.2.8.1 Azterketa soziolinguistikoa.....	42
3.2.2.8.2 Hizkuntza irizpideak lantzea eta zabaltzea.....	42
3.2.2.8.3 Erabilera berezituak eta terminologia.....	43
<b>3.3 <u>EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA</u> <u>DONOSTIAKO</u></b>	
<b><u>UDALEAN</u>.....</b>	<b>44</b>
3.3.1 Xede nagusia.....	44
3.3.2 Helburu orokorrak.....	44
3.3.3 Eragin-esparruak.....	44
3.3.3.1 Hizkuntza-gaitasuna.....	44
3.3.3.2 Ahozko komunikazioa.....	44
3.3.3.3 Idatzizko komunikazioak.....	45
3.3.3.4 Itzulpenak.....	45
3.3.3.5 Langileen prestakuntza orokorra.....	45
3.3.3.6 Tresna eta aplikazio informatikoak.....	45
3.3.3.7 Internet eta intranet sareak.....	45
3.3.3.8 Argitalpenak.....	45
3.3.3.9 Hizkuntza-paisaia.....	45
3.3.3.10 Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak.....	45
3.3.3.11 Diru-laguntzak.....	45
3.3.3.12 Kontratazio administratiboak.....	46
3.3.3.13 Udal instalazioen eta materialen erabilera.....	46
3.3.3.14 Jarduerak bide publikoan.....	46
3.3.3.15 Udalak lagatako lokalak.....	46
<b>4 DONOSTIAKO EUSKARA-PLANEN LABURPENA.....</b>	<b>47</b>
4.1 <u>DONOSTIAKO EUSKARAREN PLAN OROKORRA ETA EUSKARAREN</u> <u>EKIMEN</u>	

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

<u>ESTRATEGIKOAK</u> .....	48
4.1.1 Irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea.....	48
4.1.2 Familia.....	49
4.1.3 Lan-mundua.....	49
4.1.4 Aisia.....	50
4.1.5 Kirola.....	50
4.1.6 Kulturgintza.....	51
4.1.7 Komunikabideak eta publizitatea.....	51
4.1.8 Hizkuntza-baliabideak.....	52
4.1.9 Euskararen motibazioa eta sustapena.....	53
4.2 <u>EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA</u> <u>DONOSTIAKO</u>	
<u>UDALEAN</u> .....	54
<b>5 BALORAZIOA</b> .....	<b>56</b>
5.1 Planen indarraldiak.....	57
5.2 Irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea.....	58
5.3 Familia.....	59
5.4 Lan-mundua.....	60
5.5 Aisia.....	62
5.6 Kirola.....	63
5.7 Kulturgintza.....	64
5.8 Komunikabideak.....	64
5.9 Hizkuntza-baliabideak eta euskararen motibazioa.....	66
5.10 Kaleko erabilera.....	66
5.11 Udala.....	67
<b>6 BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>69</b>

# 1. Sarrera

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

Euskal Herriko hiriburuetan euskaldunena omen da Donostia, baina, hala eta guztiz ere, lan handia dago egiteko oraindik Gipuzkoako hiriburuan euskararen aldeko borrokan.

Gaztelania eta euskara dira ofizialak gure hirian, eta ofizialtasun-maila bera dute gainera. Alabaina, denok dakigu bi hizkuntzen arteko parekidetasuna ez dela errealia, oraindik ere euskara ez dagoela gaztelaniaren mailan, ez erabilerari dagokionez ez eta estatus ofizialari dagokionez ere.

Horrenbestez, lan handia egin behar da oraindik ere, eta Udalak paper oso garrantzitsua du prozesu horretan.

Hori guztia dela eta, lan honetan Donostiako Udalak euskararen normalizazioan jarduteko indarrean dituen planak aztertuko dira, plan horien indargune eta ahulguneak nabarmentzeko asmoarekin.

Azterketa hori egiteko, lau atal zehaztu dira. Lehenengoan, hiriaren egoeraren hurbilpen bat egingo da, batetik hiriari buruzko datu soziodemografiko zenbait emanez, eta, bestetik, hiria eta euskara lotzen dituen beste zenbait datu emanez. Bigarren atalean, Donostiako Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko indarrean dituen planak jasoko dira: Donostiako Euskararen Plan Orokorra, Euskararen Ekimen Estrategikoak eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Donostiako Udalean. Hirugarren atalari dagokionez, aurrez aipaturiko hiru plan horien uztarketa bat egingo da, gaika sailkatua. Azkenik, laugarren atalean, ordura arte bildutako guztiaren balorazio bat egingo da, hori ere gaika sailkatua.

Lanaren helburua da Donostiako Udalak euskararen normalizaziorako finkatuta dituen planen egoera ezagutzea, eta ezagupen horretatik zenbait balorazio eta ekarpen egitea.

## **2. Donostia eta euskara**



## 2.1 Donostia – Datu orokorrak

### 2.1.1 Biztanleria

Gipuzkoako hiriburuan bizi da probintziako biztanleen % 25 baino zertxobait gehiago, eta Gipuzkoako batezbesteko biztanle-dentsitatea kilometro karratuko 355 biztanle inguru den arren, Donostian zortzi bider biztanle gehiago bizi dira metro karratu bakoitzeko. Atzerritarrak, hiriko biztanleriaren % 6,91 dira.

1. taula: Datu orokorrak	
Biztanle-kopurua	186.188
Gizonezkoak	87.287
Emakumezkoak	98.898
Atzerriko biztanleria	12.871
Biztanleriaren dentsitatea	2 3.046,58 biz/km

Iturria: Donostiako Sustapena

Hamazazpi auzotan dago banatua hiria, udalaren banaketa ofizialaren arabera, nahiz eta denborarekin auzo berriak sortzen ari diren (esaterako, Erriberak) eta beste zenbait multzokatu egin diren banaketa ofizialean (Erdialdean sartu da Alde Zaharra, adibidez). Sailkapen honen arabera, Amara, Erdialdea, Altza eta Gros dira biztanle gehien dituzten auzoak (hogei mila biztanletik gertu edo hortik gora), ordena horretan, eta gutxien dituztenak, aldiz, Zubieta, Igeldo eta Añorga (bi mila biztanle inguru edo hortik behera).

2. taula: Biztanleria, auzoka	
Aiete	13.202
Altza	20.443
Amara	27.582
Añorga	2.186
Ategorrieta-Ulia	4.022

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

<b>Erdialdea</b>	22.966
<b>Egia</b>	15.042
<b>Antigua-Ondarreta</b>	15.123
<b>Gros</b>	19.638
<b>Ibaeta</b>	9.443
<b>Igeldo</b>	1.069
<b>Intxaurren</b>	16.081
<b>Loiola</b>	4.961
<b>Martutene</b>	2.908
<b>Miracruz-Bidebieta</b>	9.221
<b>Miramón-Zorroaga</b>	1.807
<b>Zubieta</b>	304

Iturria: Donostiako Sustapena

Biztanleriaren adinaren arabera banaketari erreparatuz gero, ikusten dugu 30-50 urte bitartean dagoela biztanle-kopururik handiena, goranzko joerarekin gainera, eta adin-tarte horretatik behera eta gora beherakada argia dagoela. Hiriko biztanleen batezbesteko adina 44,34 urtekoa da.

3. taula: Biztanleria, adin-taldearen arabera					
0-4 urte	7.753	% 4,16	45-49 urte	14.877	% 7,99
5-9 urte	8.020	% 4,30	50-51 urte	14.215	% 7,63
10-14 urte	7.799	% 4,18	55-59 urte	12.642	% 6,78
15-19 urte	7.400	% 3,97	60-64 urte	12.020	% 6,45
20-24 urte	8.865	% 4,76	65-69 urte	9.822	% 5,27
25-30 urte	11.148	% 5,98	70-74 urte	7.941	% 4,26
31-34 urte	13.534	% 7,2	75-79 urte	8.298	% 4,45
35-39 urte	14.313	% 7,68	80-84 urte	6.406	% 3,44
40-44 urte	14.567	% 7,82	85 eta gehiago	5.888	% 3,16

Iturria: EUSTAT

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

### 1. grafikoa:

*Iturria: EUSTAT*

Hiriaren Barne Produktu Gordina 6.448.000 €-koa izan zen 2010ean, 2009an baino ia puntu bat altuagoa baina 2008an baina puntu erdi baxuagoa. Gipuzkoako Barne Produktu Gordina kontuan hartzen badugu, ikusten dugu Donostiako BPGa Gipuzkoakoaren % 30,50 dela.

### 2. grafikoa:

*Iturria: Donostiako Sustapena*

Arreta sektoreetan jartzen badugu, ikusten dugu zerbitzuen sektorea dela Balio Erantsi Gordin handiena duen sektorea, eraikuntza baino ia 11 aldiz handiagoa, industria baino 12 aldiz handiagoa eta nekazaritza baino 775 aldiz handiagoa (2008. urteko datuak). Hala, ikusten dugu zerbitzuen sektorea dela hiriarri diru gehien ematen dion sektorea, eta nekazaritza ia ikusezina dela batez ere turismotik bizi den gure hirian. Donostiako zerbitzuen sektorea Gipuzkoako datuekin alderatuta, 25,54 puntu altuagoa da; industria, aldiz, 25,22 puntu baxuagoa.

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

4. taula: Balio Erantsi Gordina, sektoreen arabera				
Sektorea	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
BEG (%)	0,11	6,78	7,77	85,34

Iturria: EUSTAT

### 2.1.2 Enplegua

Lehen esan bezala, zerbitzuen sektorea da Donostian lan gehien sortzen duen sektorea, eta, horren barruan, administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna dira langile gehien dituzten alorrak. Merkataritzaren, garraioaren eta ostalaritzaren esparruek ere berebiziko garrantzia dute, arestian aipatu moduan, turismoa delako Donostiaren indargune handienetako bat.

5. taula: Enplegua	
Enplegua, guztira	93.401
Industria eta energia	4.381
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	22.965
Informazioa eta komunikazioak	3.771
Eraikuntza	7.727
Finantza-jarduerak eta aseguruak	3.805
Higiezinetao jarduerak	1.110
Lanbide-jarduerak	18.756
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	25.408
Beste jarduera/zerbitzu batzuk	5.478

Iturria: EUSTAT

Langileen errentei dagokienez, Donostiako biztanle langileen batezbesteko errenta pertsonala 20.056 €-koa izan zen 2006an, eta, puntu honetan, aipatu beharrekoa da gizonezkoen batezbesteko errenta pertsonala emakumezkoena baino ia 11.000 euro handiagoa zela.

### 6. taula: Batezbesteko errenta pertsonala

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Batezbesteko errenta pertsonala (€)	Bb errenta pertsonala (€): Gizonezkoak	Bb errenta pertsonala (€): Emakumezkoak
20.056	25.932	15.022

Iturria: EUSTAT

Hiriak dituen 186.188 biztanleetatik, 105.000 inguru daude lan-egiteko adinean, eta horietatik % 10,30 langabezian dago, 10.800 lagun inguru beraz. Kasu honetan, errentaren kasuan ez bezala, ez dago aparteko alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

### 3. grafikoa:

Iturria: Donostiako Sustapena

7. taula: Langabetu-kopurua				
Langabetuak Orotara	Langabetuak: gizonezkoak.		Langabetuak: emakumezkoak	
10.849	5.079	%46,81	5.770	%53,18

Iturria: EUSTAT

### 4. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

Sektoreei erreparatzen badiegu, langabetuen % 73,96 zerbitzuen sektorekoak dira, eta, aldiz, % 0,98 nekazaritzakoak. Kontuan izan behar da, noski, datu horiek sektore bakoitzaren baliabideen emaitza direla.

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

8. taula: Langabetuak, sektorearen arabera							
Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
107	<b>%0,98</b>	1.060	<b>%9,77</b>	896	<b>%8,25</b>	8.024	<b>%73,96</b>

Iturria: EUSTAT

### 5. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

Adinari dagokionez, langabetuen kopururik handiena 25 eta 44 urte bitartekoak dira, eta 45 urtetik gorakoak ere antzeko kopurua dira. 25 urtetik beherakoak dira, beraz, langabetuen artean gutxienak.

9. taula: Langabetuak, adinaren arabera					
<25 urte		25-44 urte		45 + urte	
726	<b>%6,69</b>	5.414	<b>%49,90</b>	4.709	<b>%43,40</b>

Iturria: EUSTAT

### 6. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

### 2.1.3 Donostiako Udala

2011ko maiatzeko hauteskundeen ondoren, Eusko Alkartasunak, Alternatibak eta ezker abertzaleak osaturiko Bildu koalizioko Juan Karlos Izagirre da Donostiako egungo alkatea, bozen % 24,03 eskuratuta. Zortzi zinegotzi ditu Bilduk Donostiako Udalean. PSE-EEK bozen % 22,38 eskuratu zituen, eta, bozka horiei esker, zazpi zinegotzi ditu egun. PPk eta EAJk seina zinegotzi dituzte, hauteskundeetan bozen % 18,78 eta % 17,74 eskuratu eta gero, hurrenez hurren.

#### 7. grafikoa:

Udalaren osaerari dagokionez, egun, udalak hamaika ordezkari ditu, eta udalbatzarra bederatzi batzordek osatzen dute. Departamentuak, aldiz, hamasei dira Donostiako Udalean.

10. taula: Udal-administrazioaren egitura

Alkatea
Udal-bilkura
Tokiko gobernu batzarra
Alkateordeak
Ordezkaritzak
<b>Kulturako eta Euskarako ordezkaria</b>
<b>Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi ordezkaria</b>

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Ogasuneko ordezkaria	
Hiri azpiegituretako eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria	
Kiroletako eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkaria	
Gizarte Ongizateko, Lankidetzako eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkaria	
Informazioko, Partaidetzako eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria	
Berdintasuneko, Migrazioko eta Gazteriako zinegotzi ordezkaria	
Giza Baliabideetako eta Herri Babeseko zinegotzi ordezkaria	
Idazkari nagusia – Lege zuzendaria	
Kontu-hartzaile nagusia	
Udalbatzarraren batzordeak	
Zerbitzu Orokorren Batzordea	
Ogasun Batzordea	
Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordea	
Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea	
Gune Publikoetako Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak	
Kontuen Batzorde Berezia	
Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia	
Aurrekontua Kontrolatzeko Batzorde Berezia	
Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia	
Departamentuak	
Alkatetza eta talde politikoak	Mugikortasunerako Zuzendaritza
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza	Lehendakaritzako Zuzendaritza
Finantza Zuzendaritza	Proiektu eta Obretako Zuzendaritza
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetz, Berdintasuna eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Giza Baliabideen Zuzendaritza
Kontuhartzailetza eta Kontabilitateko Zuzendaritza	Hirigintzako Zuzendaritza
Lege Zuzendaritza	Udaltzaingoa
Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza	Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zentroa
Ingurumen Zuzendaritza	Euskara Zerbitzua

2012. urteko aurrekontua egiteko, Udalak 276.236.535 € zituen, eta hamazazpi arlotan banatu du kopuru hori. Diru-kopuru horren ehunekorik handiena inbertsioetara bideratu du, eta txikiena, berriz, partaidetzara. Euskarari aurrekontuaren % 0,87 esleitu



## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

zaio, 2.417.943 € zehazki.

11. taula: 2012ko udal aurrekontua					
Arloa	Aurrekontua		Arloa	Aurrekontua	
Komunitate-ongizatea	43.153.703 €	%15,62	Kultura	27.307.589 €	%9,88
Garraioa	43.338.399 €	%15,68	Gizarte Ekintza	26.898.223 €	%9,73
Kirolak	14.107.708 €	%5,10	Herritarren Segurtasuna	21.469.081 €	%7,77
Hezkuntza	9.622.980 €	%3,48	Ingurumena	3.100.656 €	%1,12
Etxebizitza	9.178.629 €	%3,32	Osasuna	1.484.625 €	%0,53
Euskara	2.412.520 €	%0,87	Lankidetzak	1.361.900 €	%0,49
Turismoa	2.417.943 €	%0,87	Inbertsioak	58.285.550 €	%21,09
Partaidetza	590.811 €	%0,21	Gobernu Organoak	1.437.715 €	%0,52
Enplegu-sustapena	10.068.503 €	%3,64	GUZTIRA	276.236.535 €	

Iturria: Donostiako Sustapena

### 2.1.4 Hezkuntza

Derrigorrezko Lehen Mailaren eta Derrigorrezko Bigarren Mailaren eskaintzan, Donostian 73 ikastetxe daude. Horietatik 32 publikoak dira, eta 32, pribatuak (kontzertatuak zein erabat pribatuak).

12. taula: Ikastetxeak	
Aitor Ikastola LHI (publ)	San Jose HIP (prib)
Altza-S.J.C. LHI (publ)	Axular Lizeoa HLBHIP (prib)
Amara Berri LHI (publ)	Belen HLBHIP (prib)
Amasorrain Ikastola LHI (publ)	Católico Sta. María HLBHIP (prib) (Marianistas)
Arantzazuko Ama Ikastola LHI (publ)	Compañía de María HLBHIP (prib)
Catalina de Erauso LHI (publ)	Ekintza HLBHIP (prib)
Harri Berri-Oleta LHI (publ)	Eskibel HLBHIP (prib)
Herrera LHI (publ)	Herri Ametsa Ikastola HLBHIP (prib)
Ibai Ikastola LHI (publ)	Ingles HLBHIP (prib)

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Igeldo LHI (publ)	La Anunciata HLBHIP (prib)
Ikasbide Ikastola LHI (publ)	La Asunción HLBHIP (prib)
Intxaurren Hegoa LHI (publ)	La Salle HLBHIP (prib)
Intxaurren Ikastola LHI (publ)	Manuel de Larramendi HLBHIP (prib)
Jakintza Ikastola LHI (publ)	María Auxiliadora HLBHIP (prib)
Mendiola LHI (publ)	María Reina HLBHIP (prib)
Orixe Ikastola LHI (publ)	Mariaren Bihotza Ikastola HLBHIP (prib)
Zubieta LHI (publ)	Mary Ward HLBHIP (prib)
Zuhaizti LHI (publ)	Niño Jesús de Praga HLBHIP (El Carmelo) (prib)
Herrera HHI (publ)	Ntra. Sra. De Aranzazu HLBHIP (prib)
Intxaurren Hegoa LHI (publ)	Presentación de María HLBHIP (prib)
Bidebieta HE (publ)	Sagrado Corazón HLBHIP (Mundaiz) (prib)
Harri Berri HE (publ)	San Alberto Magno HLBHIP (prib)
Gipuzkoako UBI (publ)	San Luis La Salle HLBHIP (prib)
Easo Politeknikoa GBLHI (publ)	San Patricio HLBHIP (prib)
Altza BHI (publ)	Santa Teresa HLBHIP (prib)
Antigua Luberri BHI (publ)	Santo Tomas Lizeoa HLBHIP (prib)
Arantzazuko Ama BHI (publ)	Zurriola Ikastola HLBHIP (prib)
Bidebieta BHI (publ)	Cebanc CDEA BHIP (prib)
Lauaizeta BHI (publ)	Ceinpro BHIP (prib)
Usandizaga Peñaflorida Amara BHI (publ)	Centro de estudios AEG BHIP (prib)
Xabier Zubiri Manteo BHI (publ)	J.M. Barandiaran Lizeoa BHIP (prib)
Aspace HBIP (prib)	María Inmaculada BHIP (prib)
Gautena Azcarate Enea HBIP (prib)	Nazaret BHIP (prib)
Eucaristo San Jose HIP (prib)	San Miguel Fundación Vda. Elizaran BHIP (prib)
Juana de Arco HIP (prib)	San Ignacio de Loyola HLBHIP (prib)

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Niño Jesús HIP (Siervas de Jesús) (prib)

Euskaltegi sarea, aldiz, hamalau euskaltegiz osatua dago, horietako bost AEKrenak direlarik.

13. taula: Euskaltegiak	
Altza Euskaltegia	Ilazki Euskaltegia
Amara Berri AEK	Irrintzi AEK
Antiguako AEK	Legazpi 6 Euskaltegia
Azpil AEK	Mondragon Lingua
Bai & By	Monpas Euskaltegia
Gotzon Aleman AEK	Urrats Euskaltegia
Hitzez Euskaltegia	Urumea Euskaltegia

## 2.2 Donostia eta euskara

### 2.2.1 Hizkuntza-gaitasuna

Hasteko, Donostiako hizkuntza-gaitasun orokorrari eta gaitasun horren bilakaerari erreparatuko diogu. 2006ko datuen arabera, urte hartan biztanleen % 40,3 zen elebiduna. Aurreko urteetako datuei begiratuta, ikusten da urtez urte gora egiten duela Donostiako elebidun-kopuruak, eta, gainera, badirudi azken urteetan gero eta gehiago hazten ari dela kopuru hori: 1986tik 1991rako lau-urtekoan 1,31 hazi zen bitartean, 2001etik 2006rako lau-urtekoan 5,75 puntu hazi zen, lau aldiz gehiago alegia. Kontrara, erdaldun elebakarren kopuruak behera egin du urteek aurrera egin ahala, eta 1986an biztanleen % 54,3 izatetik, 2006an % 33,02 izatera pasatu da; 21,28 puntuko aldea 20 urtean.

14. taula: Hizkuntza-gaitasun orokorraren bilakaera										
	1986		1991		1996		2001		2006	
Elebidunak	42.521	<b>%26,03</b>	44.966	<b>%27,34</b>	55.291	<b>%32,56</b>	58.685	<b>%34,6</b>	71.106	<b>%40,35</b>
Elebidun hartzaileak	32.107	<b>%19,65</b>	34.196	<b>%20,79</b>	35.083	<b>%20,66</b>	36.989	<b>%21,81</b>	46.900	<b>%26,61</b>
Erdaldun elebakarrak	88.684	<b>%54,3</b>	85.251	<b>%51,85</b>	79.429	<b>%46,77</b>	73.917	<b>%43,58</b>	58.201	<b>%33,02</b>
<b>Guztira</b>	<b>163.312</b>		<b>164.413</b>		<b>169.803</b>		<b>169.591</b>		<b>176.207</b>	

Iturria: EUSTAT

8. grafikoa:

*Iturria: EUSTAT*

Auzokako datuak begiztatzeko baditugu, argi ikusten dugu Donostiako auzorik txikienak direla euskaldunenak (Zubieta, Igeldo eta Añorga). Aldiz, erdaldun portzentajerik handiena Altza auzoan dago. Nabarmentzekoa da hiriko hamazazpi auzoetatik hamalautan gehiago direla euskaldunak erdaldunak baino, eta gainerako hiru auzoetan ere euskaldunak eta ia-euskaldunak elkartuta erdaldunak baino nabarmen gehiago direla.

**15. taula: Hizkuntza-gaitasuna, auzoaren arabera**

Auzoa	Guztira	Euskaldunak		Ia-euskaldunak		Erdaldunak	
Aiete	12.206	5.270	%43,18	3.477	%28,4	3.459	%28,3
Altza	18.708	5.451	%29,14	4.721	%25,2	8.536	%45,6
Amara Berri	24.997	10.043	%40,18	6.886	%27,5	8.068	%32,2
Antigua	14.632	7.008	%47,90	3.874	%26,4	3.750	%26,1
Añorga	2.165	1.260	%58,20	509	%23,5	396	%18,2
Ategorrieta- Ulia	3.817	1.601	%41,94	1.036	%27,14	1.180	%30,9
Egia	14.716	5.459	%37,10	3.769	%25,6	5.488	%37,2
Erdialdea- Parte Zaharra	22.829	10.225	%44,79	5.913	%25,9	6.691	%29,3
Gros	19.505	7.756	%39,76	5.292	%27,1	6.457	%33,1
Ibaeta	8.377	3.969	%47,38	2.304	%27,5	2.104	%25,1

Igeldo	957	628	%65,62	177	%18,5	152	%15,8
Intxaurreondo	15.496	5.806	%37,47	4.453	%28,7	5.237	%33,8
Loiola	4.547	1.696	%37,30	1.172	%25,7	1.679	%36,9
Martutene	2.702	1.073	%39,71	661	%24,4	968	%35,8
Mirakruz- Bidebieta	8.732	2.950	%33,78	2.238	%25,6	3.544	%40,5
Miramón- Zorroaga	1.542	703	%45,59	374	%24,2	465	%30,1
Zubieta	279	208	%74,55	44	%15,7	27	%9,6
<b>Guztira</b>	<b>176.207</b>	<b>71.106</b>		<b>46.900</b>		<b>58.201</b>	

Iturria: Donostiako Sustapena

## 2.2.2 Ama-hizkuntza

Donostiako biztanleriaren gehiengoak, % 69,32k hain zuzen, gaztelania du ama-hizkuntza, eta, euskara, berriz, % 20,52ren ama-hizkuntza da. Bada biztanleriaren zati txiki bat bi hizkuntza horiek ama-hizkuntzatzat dituen, eta beste zati txiki batek beste hizkuntzaren bat jaso du etxean.

16. taula: Ama-hizkuntza							
Euskara		Gaztelania		Biak		Beste bat	
37.076	%20,52	125.249	%69,32	13.634	%7,54	4.698	%2,60

Iturria: EUSTAT

9. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

### 2.2.3 Hizkuntza-transmisioa

Hizkuntza-transmisioari begiratuta, datuek diote euskararen transmisioa 0,18 puntu jaitsi zela 1986. urtetik 2001.era; gaztelaniarena, aldiz, 1,56 puntu igo zen. Euskara eta gaztelania biak transmititzen zituztenen kopuruak behera egin zuen.

17. taula: Hizkuntza-transmisioaren bilakaera								
	1986		1991		1996		2001	
Euskara	32.517	<b>%19,91</b>	32.063	<b>%19,5</b>	33.423	<b>%19,68</b>	33.472	<b>%19,73</b>
Euskara eta gaztelania	12.768	<b>%7,81</b>	12.082	<b>%7,34</b>	13.241	<b>%7,79</b>	11.368	<b>%6,7</b>
Gaztelania	114.427	<b>%70,06</b>	117.483	<b>%71,45</b>	120.279	<b>%70,83</b>	121.473	<b>%71,62</b>
Besterik	3.600	<b>%2,2</b>	2.785	<b>%1,69</b>	2.860	<b>%1,68</b>	3.278	<b>%1,93</b>
<b>Guztira</b>	<b>163.312</b>		<b>164.413</b>		<b>169.803</b>		<b>169.591</b>	

Iturria: EUSTAT

#### 10. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

### 2.2.4 Etxeko erabilera

Hizkuntza-transmisioaren kasuan ez bezala, euskararen etxeko erabilerak gora egin du urtez urte, eta 2006an Donostiako biztanleen % 11,32k euskara erabiltzen zuen etxean. Gaztelaniaren erabilerak beheraka egin du, maila apalean bada ere, eta, urte berean,

biztanleen % 76,88k erabiltzen zuen. Hizkuntza-gaitasunarekin gertatzen den moduan,

euskararen etxeko erabileraren hazkundera handiagoa da urte hauetan, eta gaztelaniarena, txikiagoa. Datuek diotenez, hiriko 1.500 lagun inguruk soilik hitz egiten dute etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat.

18. taula: Euskararen etxeko erabileraren bilakaera								
	1991		1996		2001		2006	
Euskara	14.061	<b>%8,55</b>	15.987	<b>%9,41</b>	16.017	<b>%9,44</b>	20.456	<b>%11,32</b>
Euskara eta gaztelania	20.123	<b>%12,23</b>	19.898	<b>%11,71</b>	19.866	<b>%11,71</b>	19.770	<b>%10,94</b>
Gaztelania	129.232	<b>%78,6</b>	132.956	<b>%78,3</b>	132.633	<b>%78,2</b>	138.897	<b>%76,88</b>
Besterik	997	<b>%0,6</b>	962	<b>%0,56</b>	1.075	<b>%0,63</b>	1.534	<b>%0,84</b>
<b>Guztira</b>	<b>164.413</b>		<b>169.803</b>		<b>169.591</b>		<b>180657</b>	

Iturria: EUSTAT

#### 11. grafikoa:

Iturria: EUSTAT

### 2.2.5 Euskararen aurrekontua udalean

Gorago aipatu den moduan, Donostiako Udalaren 2012ko aurrekontuan euskarari aurrekontu osoaren % 0,87 esleitu zaio, 2.412.520 € hain zuzen ere. Diru-kopurua nola banatzen den jakiteko, 2002ko datuetara jo behar dugu, urte hartan banaketa nolakoa izan zen ikusi ahal izateko. Kontuan izan behar da urtez urte banaketak ez duela zertan berdina izan, eta, gainera, nabarmentzekoa da urte hartan alkatetzan zegoen alderdia eta gaur egun dagoena ez direla berak. Hala ere, ikus dezagun nola banatu zen 2002. urtean Udalak euskarari bideratutako aurrekontua:



19. taula: Udal aurrekontua, 2002. urtea	
<b>GASTUA GUZTIRA</b>	2.287.400
Euskalduntze-alfabetatzea	887.504
Euskararen sustapena	234.650
Elkarte ezberdinei diru-laguntzak	43.213
Literatura eta irakurzaletasuna	44.413
Komunikabideak	134.166
Euskararen erabilera-planak	27.189
Bertsolaritza	2.836
Euskarazko materialgintza	22.152
Etnokultura	196
Antzerkia eta zinegintza	109.782
Txosten eta ikerketak	21.035
Hizkuntza-paisaia eta errotulazioa	817
Beste gastu-kontzeptu batzuk	28.230
Sentiberatzea eta kanpainak	0
Pertsonal-gastuak	589.509
Funtzionamendu-gastuak	141.708

*Iturria: Donostiako Sustapena*

## 2.2.6 Hezkuntza – Matrikulazio-datuak

Donostiako matrikulazio datuei erreparatuz gero, argi ikusten da euskarak behera egiten duela ikasketa-mailak gora egin ahala. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikasleen gehiengoak, ia % 61ek, D ereduan egiten ditu ikasketak. Derrigorrezko Bigarren Mailan, nahiko parekatua dago D ereduko eta B ereduko ikasle-kopurua, baina, batxilergoan, nabarmen handiagoa da A ereduan dagoen lagun-kopurua, D ereduan dagoena baino. Hala ere, azken kasu horretan dagoen aldea ez da inolaz ere gerturaten Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dagoen alderantzizkako diferentziarekin. Izan ere, Batxilergoan, hamar ikasletik 5ek gaztelaniaz egiten ditu ikasketak eta ia lauk

gaztelaniaz. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan berriz, hamarretik batera ere ez da iristen A eredia hautatzen duen ikasle-kopurua, eta D eredia hamar ikasletik seik hautatzen dute. Hezkuntza Berezian, D eredia da gutxien aukeratzen den eredia, nahiz eta aldea ez den berebizikoa. Lanbide Heziketan aldiz, gehiengo altuenak gaztelaniaz ikasten du.

**20. taula: Matrikulazioa, hizkuntza-ereduaren arabera**

	HH-LH		DBH		Batxilergoa		Hezkuntza berezia		Lanbide heziketa	
A eredia	1.469	%7,8	666	%9,42	1.929	% 51,05	25	%37,31	1.982	%76,55
B eredia	5.918	%31,45	3.004	% 42,49	346	% 9,16	25	%37,31	46	%1,78
D eredia	11.431	%60,75	3.401	%48,09	1.504	%39,79	17	%25,38	561	%21,67
<b>Guztira</b>	<b>18.818</b>		<b>7.071</b>		<b>3.779</b>		<b>67</b>		<b>2.589</b>	

*Iturria: Donostiako Sustapena*

### **13. grafikoa: Matrikulazioa, hizkuntza-ereduaren arabera**

*Iturria: Donostiako Sustapena*

### **3. Donostiako euskara- planak**

## **3.1 Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2011-2015**

### **3.1.1 Helburu orokorra**

Donostian benetako elebitasuna lortzeko bidean aurrera egitea; hau da, euskararen berreskurapen eta zabalkunde osorako bidean hiriak aurrera egitea, udal-eskuduntzetan arituz euskararen normalkuntza-prozesuan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinazioan eta lankidetzan.

### **3.1.2 Helburu partzialak**

1. Donostiaren euskalduntzea bultzatzea. Hau da, batetik, belaunaldi berrien euskalduntze praktikoa mailaka lortzea eta euskarazko kulturara osotasunean atxiki daitezkeen lortzea eta, bestetik, helduen artean euskararen gaitasuna hobetzea eta euskara dakitenen kopurua areagotzea.

2. Donostiarren eta Donostiako erakunde publiko eta pribatuen jardunean Euskal Herriaren hizkuntza propioa ohituraz erabilia izan dadin lortzea eta jarduera osoa, menpeko baldintzatan izan gabe, gara dadin lortzea.

3. Donostiar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezkeen lortzea, era guztietako jarduera publiko, lanbidezko, kulturazko, gizartezko edo aisialdikoei dagokienez, jakinda, botere publikoek eskubide horien gauzatzea babesten dutela.

4. Euskararen irudi eta motibazioetan eraginez, herritarren sektoreetan euskararen aldeko dinamikak sustatzea: euskaraz dakitenentzat euskara modu komunikatiboago eta naturalagoan erabiltzeko motibazioa eragiten duten estrategiak bultzatuz eta, oro har, euskara gehiago baloratzeko eta prestigioa handitzeko euskara hiriaren balore eta ezaugarri nagusien artean kokatuz.

### **3.1.3 Erronkak eta helburu zehatzak**

#### **3.1.3.1 Euskararen transmisioa**

##### **3.1.3.1.1 Irakaskuntza**

**Erronka:** egun euskararen eskaintza urriagoa den 16 urtetik gorakoekin prestakuntza-zikloetan euskararen eskaintza zabaltzea. Euskararen erregistro informalarren lanketa eta garapena sustatzea, hizkuntzaren erregistro osoa ezaugarri eta erabiltzeko aukera emanez. Euskararen Udal

Patronatuaren eta hezkuntza arloko eragileen arteko lankidetzaren bultzatzea.

- 1. helburua:** euskarazko matrikulazioa sustatzea Hezkuntza arautuan nahiz ez arautuan.
- 2. helburua:** euskarazko ikasketa eta ikastaroen eskaintza handitzea. Ahalegin berezia egingo da Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Udako Ikastaroetan eta, batez ere, udalaren eskumeneko ikasketetan.
- 3. helburua:** haur eta gazteen artean euskararekiko sentsibilizazioa eta ahozko erabilera naturala sustatzea, ikastetxeetan eskola ordutik kanpoko (jolas orduetan, bazkal ostean...) eskaintzan euskararen erabilera sustatuko dela bermatuz.
- 4. helburua:** haur eta gazteen artean ahozko erabilera naturala sustatzea, eskola barruko curriculumean osagarri izan daitezkeen jarduerak txertatuz.

### 3.1.3.1.2 Euskalduntze-alfabetatzea

**Erronka:** euskara ikasleei hizkuntza komunitatean integratzeko aukerak ematea, beti ere euskaltegiekin eta arloko eragileekin lankidetzaren bidez jorratuz. Hirira datozen etorkinak euskarara hurbil daitezkeen saiatzea.

- 1. helburua:** euskara ikas dezaten, herritarrak diruz laguntzea eta ahalegina saritzea.
- 2. helburua:** gizarteko esparru, sektore, adin talde eta, oro har, herritarren behar desberdinak kontuan izanik, xede berezietako ikastaroak sustatzea.
- 3. helburua:** euskaltegiz kanpoko erabilera sustatzea, euskara ikasten ari diren ikasleek, bere ikasketa prozesuarekin batera, euskara erabiltzeko esparruak izan ditzaten.

### 3.1.3.1.3 Familia

**Erronka:** euskararen familia transmisioa bermatzea, familiaren hizkuntza tipologiaren arabera sentsibilizazio estrategia desberdinak erabiliz. Seme-alaben euskararen ikasketa prozesua babestea eta indartzea, hizkuntzarekiko afektua helaraziz eta familiaratik kanpo ere euskara bereganatu eta erabiltzeko aukerak eskainiz (zaintzaileak, eskola, aisialdia...).

- 1. helburua:** gurasoak seme-alabekiko hizkuntzaren transmisio naturalak eta kulturalak duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea.
- 2. helburua:** gurasoen hizkuntza gaitasuna indartzea.
- 3. helburua:** familiako barne bizitzan euskararen erabilera areagotzeko baliabide egokiak lantzea.

## 3.1.3.2 Euskararen erabilera

### 3.1.3.2.1 Administrazioa

#### 3.1.3.2.1.1 Udala eta erakunde autonomoak

**Erronka:** udal langileek eta arduradun politikoek bereganatu behar dute udal zuzendaritza desberdinetako komunikazio politikak nahiz jardun administratibo orokorrak euskararen erabilera bermatuko duten hizkuntza irizpideak aplikatu behar dituela. Herritarren euskarazko eskaera sustatzera zuzendutako neurriak hartzea. Sortu berri diren Hizkuntzen Erabilera Batzordeen bidez, euskara plan zehatzak garatzea udal zuzendaritzatan.

- 1. helburua:** Donostiako Udalak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera osotasunean bermatzea.
- 2. helburua:** irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean bermatzea.
- 3. helburua:** euskararen ahozko erabilera areagotzea, herritarrekiko jarduna erabat bermatuz eta Udal barruko lan harremanetan erabilera handituz.
- 4. helburua:** euskararen idatzizko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanez.
- 5. helburua:** langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

#### 3.1.3.2.1.2 Zuzenbide pribatuko entitate publikoak

**Erronka:** Udalari lotuta egonik, zerbitzu publikoa eskaintzen duten zuzenbide pribatuko entitate, enpresa edo baltzu publikoek, hizkuntza ofizialak erabiltzeko indarrean dagoen araudia bete dezaten neurriak hartu eta irizpideak finkatzea. Horretaz gain, beraien baliabideak erabiliz, euskara normalizatzeko plan propioa landu eta martxen jar dezaten bultzatzea (EUPen aholkularitzarekin). Entitate hauek euskara ziurtagiriak eskura ditzaten sustatzea (Bikain, Bai Euskarari Ziurtagiria...).

- 1. helburua:** zerbitzu publikoa eskaintzen duten zuzenbide pribatuko entitateek herritarrekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera osotasunean eman dadin bultzatzea.
- 2. helburua:** irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean emateko sustapena egitea.
- 3. helburua:** bertako langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.
- 4. helburua:** barruko lan harremanetan, ahoz zein idatziz, euskararen erabilera handitzea.

#### 3.1.3.2.2 Lan mundua

**Erronka:** enpresa pribatuetako arduradunak kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatu beharraz jabetuaraztea, bere zerbitzua euskaraz ere eskaini dezaten, legeak adierazi bezala. Arreta berezia eskaintzea merkataritza eta ostalaritzaren alorrari. Auzoka edota sektoreka eragiteko estrategiak diseinatzea eta aplikatzea. Jarduera ekonomikoen irekiera-baimena eskuratzeko prozesuan parte hartzen duten udal sailen inplikazioa lortzea. Enpresen tipologiaren araberako edota eremu-kokapen fisikoaren araberako proiektuak lantzea. Euskara ziurtagiriak lor ditzaten sustatzea.

- 1. helburua:** enpresa pribatuek herritarrekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera osotasunean eman dadin bultzatzea.
- 2. helburua:** irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean emateko sustapena egitea.

### 3. helburua: bertako langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

#### 3.1.3.2.3 Aisia

**Erronka:** aisialdiko ekintzatan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea litzateke zeregina, beti ere, euskarari dagozkion lehentasun irizpideekin. Eremu honetako eragileek beren jardueretan euskara komunikazio hizkuntza moduan gehiago erabil dezaten lortzea. Horretarako, Udalaren gainerako sail eta erakundeekiko nahiz hiriko gainerako aisialdiko elkarteekiko lankidetzan sakondu, egitasmoak modu integralagoan diseinatu eta baliabideen erabilera optimizatzeko.

- 1. helburua:** aisialdiaren eremuan, herritarrek eta batez ere gazteek duten euskarazko eskaintza areagotzea, betiere, aisialdi elkarte eta entitateen eskaintza bultzatuz, eta, haiei beren jarduerak egiteko prestakuntza, baliabideak eta laguntzak ematea.
- 2. helburua:** Donostian Udalak nahiz beste eragile batzuek antolatzen dituzten aisialdi eta jai ekitaldietan, euskararen sustapena eta erabileraren jarraipena egitea.

#### 3.1.3.2.4 Kirola

**Erronka:** kirol ekintzatan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea lortu nahi da, euskarari dagozkion lehentasun irizpideak kontuan edukiz. Azken finean, eremu honetako eragileek beren jardueretan euskara komunikazio hizkuntza moduan gehiago erabil dezaten lortzea. Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan. Kirol Patronatuarekin nahiz esparru honetan jarduten duten gainerako erakunde eta elkarteekin lankidetzan sakontzea.

- 1. helburua:** udal erakundeek antolatzen dituzten jardueretan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.
- 2. helburua:** kirol elkarten jardueretan euskararen erabilera sustatzea, beraiekin lankidetzan.
- 3. helburua:** Donostian udal erakundeekin laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuetan, euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea eta jarraipena egitea.

### 3.1.3.3 Euskararen elikadura

#### 3.1.3.3.1 Kulturgintza

**Erronka:** beti ere euskarari dagozkion lehentasun irizpideak aintzat hartuz, Donostian euskarazko kultur produktu eta ekimenen eskaintza eta kontsumoa sustatzea. Udaleko nahiz hiriko kultur eragile eta programatzaileekin elkarlana bideratzea, hizkuntza oinarri duten kultur adierazpen guztietan (zinea, antzerkia, musika, literatura...). 2016 urtean Europako Kultur Hiriburua izateko proiektuan, euskara ondare soil gisa baino, komunikaziorako tresna eraginkor gisa azaltzea.

- 1. helburua:** Udalak kulturaren eremuan herritarrei, eta batez ere gazteei, luzatzen dien euskarazko eskaintza, kultur elkarte eta entitateen eskaintzarekin osatzea, eta

beren jarduerak egiteko prestakuntza, baliabideak eta laguntzak ematea.

**2. helburua:** hiriko kultur eskaintza eta produktuen kontsumoa bultzatzea, hartarako informazioa zabalduz eta udala eta hiriko gainerako eragileen arteko koordinazioa landuz.

**3. helburua:** Donostian udalak nahiz beste eragile batzuek antolatzen dituzten kultur ekitaldi garrantzitsuetan, euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea eta jarraipena egitea.

**4. helburua:** euskarazko zinema eskaintza areagotzeki begira, euskarazko sorkuntza eta produkzioa sustatzeaz gain, zinema komertzialaren alorrean, horretan eskumena duten eragile eta erakundeen elkarlana baliatuz, film azpidatzen aukera bultzatzea.

### 3.1.3.3.2 Komunikabideak

**Erronka:** euskarazko komunikabideak laguntzea, eta herritarren artean sustatzea. Komunikabide horien kalitatea hobetzea, hiriko eskaintza eta eskari potentzialaren arteko interakzioa sustatuz, beren kontsumoa areagotzeko. Publizitatea kontratatzen eta sortzen dutenak sentsibilizatzea, alor honetan euskararen presentzia zabaltzeko.

**1. helburua:** euskarazko tokiko komunikabideekin elkarlana areagotu, ditu laguntzak euskararen erabilera sustatzeaz gain, eskaintzen den produktu komunikatiboaren erakargarritasuna, funtzionalitatea eta zabalkundea hobetzeko ere balio dezan.

**2. helburua:** Donostiako enpresek, oro har, eta publizitate enpresek, bereziki, egiten dituzten komunikazio kanpainetan euskararen presentzia areagotzea.

**3. helburua:** herritarrak, eta, batik bat, gazteak komunikabide espezializatuaren arlora euskaraz hurbiltzeko aukerak eskaintzea.

### 3.1.3.3.3 Hizkuntza baliabideak eta korpua

**Erronka:** hainbat gizarte eremutako kanpo komunikazio idatzietan euskararen erabilera areagotzeko, EUPek hizkuntza zerbitzuak eskaintzen jarraitzea (kontsulta, itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, kasu). Hiriko hizkuntza paisaian (batez ere zerbitzuen sektoreko establezimendutan) euskararen presentzia areagotzeko neurri bereziak bideratzea. IKT berrien alorrean euskarazko erabilera erraztuko duten baliabideak eskaintzen jarraitzea.

**1. helburua:** IKT berrietan (ordenagailu, sakelako telefono...) euskararen erabilera areagotzea herritarrek euskarari sarbidea emateko produktuak eta aholku zerbitzuak garatuz eta tresna hauetan erabiltzen diren hizkuntza erregistro informalak sortzeko eta erabiltzeko aukerak eskainiz.

**2. helburua:** herritarrei hizkuntza baliabideak eta aholkularitza ematea, eta euskararen kalitatea zaintzea.

**3. helburua:** hiriaren berezko hizkuntza ondarea berreskuratu, landu eta gizarteratzea (dialektologia, toponimia...) eta, batik bat, erabilera komunikatiboa izan dezan sustatzea, hainbat erregistro eta kanal landuz.



### **3.1.3.4 Euskararen motibazioa eta sustapena**

#### **3.1.3.4.1 Euskararen motibazioa eta sustapena**

**Erronka:** herritarrek bereganatzea euskara pertsonen komunikazio gaitasuna hobetzeko aukera ematen duen tresna dela, hots, euskararen balio praktikoa bereganatzea. Euskara, hiriko kultur ondarearen elementu nagusienetako bat bezala kokatzea, euskararen ezagutza, eta batik bat erabilerara praktikoa errealia sustatuko duen gizarte sentsibilizazio-, aila areagotuz. Motibazioan eragiteak esan nahi du baita ere hizkuntzen erabileran ematen diren egoera desberdinak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, soziolinguistikari buruzko oinarrizko azalpenak gizarteratzea eta euskararen erabileraren aldeko argudioak ematea. Alderdi hau gutxi landu da orain arte eta sektore, talde eta adin tarte desberdinetan landu beharra ikusten da.

- 1. helburua:** donostiarrak euskararen alde sentiberatzea, euskarak egungo gizartean dituen balioak nabarmenduz.

## 3.2 Euskararen Ekimen Estrategikoak - Donostiako Plan Orokorra

### 3.2.1 Helburu orokorra

Benetako elebitasuna lortzeak zera ekarri behar du euskararen berreskurapen osoa Donostian, udal eskuduntzetan arituz euskararen normalkuntza prozesuan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinazioan eta lankidetzan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin bereziki.

1. Donostiarren euskalduntzea bultzatzea. Hau da, batetik, belaunaldi berrien euskalduntze praktikoa mailaka lortzea eta euskarazko kulturara osotasunean atxiki daitezen lortzea, eta, bestetik, helduen artean euskararen gaitasuna hobetzea eta euskara dakitenen kopurua areagotzea.

2. Donostiako erakunde publiko eta pribatuen erabilera publiko guztietan Euskal Herriaren berenezko hizkuntza ohituraz erabilia izan dadin lortzea eta jarduera osoa, menpeko baldintzatan izan gabe gara dadin lortzea.

3. Donostiar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzea, era guztietako jarduera publiko, lanbidezko, kulturazko, gizartezko edo aisialdikoei dagokienean, jakinda, botere publikoek eskubide hauen gauzapena babesten dutela.

### 3.2.2 Helburuak, ekimenerako jarraibideak eta lehenetsitako ekintzak

#### 3.2.2.1 Familia harremanak

**Helburu estrategikoa:** Donostiako familietan euskararen erabilera sendotu eta indartzea, eta era horretara belaunaldietako hizkuntza transmisioa egoki beteko dela ziurtatzea.

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez, familietako partaide direnen artean normalizazio linguistikoaren aldeko jarrerak zabal daitezen bultzatzea.
- Familia barruko kideek euskaraz duten gaitasuna indartzea.

#### **Ekintzak**

- Euskarari buruzko ekitaldiak. baina ez euskaraz: etxe erreregionalen federazioekin solaskidetza

abian jartzea euskararekiko sentiberatasuna lantzeko.

- FHetako plana aurrera eramateko “familia gaztea” (ezkonberriak, izatezko bikoteak, 0-8 urte bitarteko haurrak dituzten familiak...) ukitzen dituen erakundeekin hitzarmenak sinatzea.
- Lankidetzaz hitzarmenak sinatzea haur parkeekin (bezeroak 0-12 urteko haurrak) hizkuntzen erabilera egokia bermatzeko.
- “Familia gazteak” (0-8 urte bitarteko haurrak dituzten bikoteak, edota oraindik bat ere haurrik ez dutenak) euskararekin sentiberatzeko kanpainak eta ekintzak egitea.
- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoa (sehaska kanten bilduma CD batean).
- Batzorde bat sortzea 0-8 urte bitarteko haurren jostailuen eta jokoen hizkuntza aztertzeko, egokitu beharrekoen zerrenda egin, lehentasunak definitu, merkaturatzeko eta zabaltzeko ekintzen proposamenak landu.

### 3.2.2.2 Hezkuntza, ikerketa eta gazteria

#### 3.2.2.2.1 Eskola irakaskuntza

**Helburu estrategikoa:** unibertsitate aurreko irakasmailetan euskararen normalizazio prozesua zabaldu eta sendotzea

##### Ekimenerako jarraibideak

- Beren matrikula euskaraz egin duten ikasle kopurua handitzea
- Ikastetxeetan erabiltzen den euskararen kalitatea areagotzea
- Euskararen erabilera normalizatzea eskolaren eremu hertsitik kanpora ere. Gazteei euskaraz bizitzeko aukera ematea

##### Ekintzak

- Kontzientziatze kanpaina egitea, bai gazteentzat, bai haien gurasoentzat eguneroko bizitzan euskara erabil dezaten
- Euskararen erabilera bultzatzea gazteen aisialdiko eremuetan. Udalaren esku dauden zentron euskalduntzea bultzatu eta zentro pribatuek ere beren jarduerak zentzu horretan landu ditzaten bultzatzea (USEPIE)
- Euskarazko kalitateko kultur jardueren programa iraunkor bat lantzea. Agente pribatuek (zine areto, dantzaleku...) programa horretan parte har dezaten bultzatzea.
- Kultura euskaraz zabaltzeko tresnak (liburuak, aldizkariak, musika...) gazteen eskuetan jarri eta bultzatzea. Lehiaketetarako deialdiak egitea arlo honetan, diru-laguntzak ematea, etab.

#### 3.2.2.2.2 Unibertsitatea

**Helburu estrategikoa:** unibertsitate mailako hezkuntzan euskararen erabileraren normalizazio prozesua abiarazi eta, abiatu dagoenean, indartzea

##### Ekimenerako jarraibideak

- Gizartean euskararen egoera egiaz normaliza dadin unibertsitatean euskara sartzeak duen garrantziaz ohartu eta hartaz sentsibilizatzea
- Unibertsitatearen euskalduntze prozesua aurrera egiteko behar diren giza eta teknika baliabideak indartzea
- Euskararen presentzia bultzatzea udako ikastaroetan

##### Ekintzak

- Unibertsitateko ikasmateriala (liburuak, apunteak, e.a.) euskaraz argitaratzeko laguntzak ematea

#### 3.2.2.2.3 Gazteria

**Helburu estrategikoa:** gazteei euskaraz bizi daitezen aukera ematea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Normalean euskara erabil dezaten kontzientziatu eta sentsibilizatzea

**Ekintzak**

- Gazteak beren eguneroko bizitzan euskara erabiltzera bideratutako motibazio kanpainak

**3.2.2.2.4 Prestakuntza**

**Helburu estrategikoa:** irakaskuntza ez-arautuetan euskara sartzeko ahaleginean aurrera egitea.

**Ekimenerako jarraibideak**

- Kontzientziatu eta sentsibilizatzea euskararen irakaskuntzaren balioa aintzat har dadin
- Irakaskuntza ez-arautuko ikastegiaren euskalduntze prozesuan aurrera egiteko behar dituen giza eta teknika baliabideak indartzea.

**Ekintzak**

- Irakaskuntza arautu gabea duten ikastetxeetan, euskarazko materialaren (liburu, apunte eta abarren) argitalpena bultzatzea.

**3.2.2.2.5 Helduen euskalduntze alfabetatzea**

**Helburu estrategikoa:** euskalduntze eta alfabetatze ikastegiekin elkarlanean jardutea, horien merkatua handitu eta irakaskuntza hobetzeko.

**Ekimenerako jarraibideak**

- Ikastegi horien marketin modua hobetzea
- Ikastegietan ematen den irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko behar diren giza eta teknika baliabideak indartzea
- Euskara ikasi eta hobetu nahi dutenentzat bideak erraztu

**Ekintzak**

- Helduen matrikulazioa sustatzeko laguntzak komunikazio kanpainetan
- Euskarazko helduen irakaskuntzarako materialaren (liburu, apunte eta abarren) argitalpena laguntzea
- Donostiarrak euskaldundu eta alfabetatzeko diru-laguntzen politika berrikustea eta plangintza horren irizpideetara egokitzea
- “Euskara ikaslearen txartela” sortzea eta indarrean jartzea, zenbait kontutan kultura txartelaren antzera erabiltzeko

**3.2.2.3 Herri administrazioa**

**3.2.2.3.1 Udal administrazioa**

**Helburu estrategikoa:** udal administrazioan euskararen erabilera normalizatzea, bai barne funtzionamenduko alorretan bai herritarrekiko eta gainerako erakunde eta instituzioekiko harremanetan ere

**Ekimenerako jarraibideak**

- Langileen euskalduntzea eta politikarien euskalduntzea ahalbidetzea.
- Langile eta politikari elebidunen prestakuntza eta hizkuntza gaitasuna etengabe handitzea
- Udal administrazioan sartzen diren pertsona berriak, bai langile gisa bai politikari gisa sartzen

direnak, elebidun izan daitezen ahalegintzea

- Udal administrazioaren alor guztietan euskarak laneko hizkuntza bezala idatziz zein mintzatuz duen erabilera indartzea
- Administrazioetako langileak euskara ikasteko eta etengabe hobetzeko premiari buruz sentsibilizatzea eta haien gogo berotzea
- Euskara zerbitzu hizkuntza bezala erabiliko dela bermatzea
- Beste hirugarren bitartekarien bidez ematen diren zerbitzu publikoetan euskara, Administrazioari berari eska dakizkiokeen baldintza berberetan erabiliko dela bermatzea
- Udalak eta bertako zerbitzuek, zein bere eskumen esparruan, kanpoko erakunde eta pertsonekin dituzten harremanetan euskararen erabilera bultzatu eta indartzea

### **Ekintzak**

- Langileentzako nahiz agintari politiko eta izendapenezko kargudunentzat euskarazko prestakuntza eta formazio programekin jarraitzea.
- Hizkuntza ikasketak eta gaitasuna hobetzeko plangintzetan hobekuntza ikastaro lagungarriak ere sartzea.
- Dagokien HE lortu duten langileei euskara maila hobetzen jarraitzeko aukera ematea
- Hizkuntza ezaguera eta erabilera zabaldu eta hobetzeko hizkuntza dinamizazio ekintzak prestatu eta martxan jartzea
- Lanpostuei derrigortasun data berriak ezartzeko planean jasotako irizpideak betetzea.
- Alderdi politikoak sentsibilizatzea eta jakitun jartzea, udal administrazioan sartzen diren langile zein politikari berriak elebidunak izatearen garrantziaz.
- Donostiarren hizkuntza eskubideak bermatzeko beste neurrien artean Donostiako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko planaren berri emateko kanpaina egitea.
- Lehendik martxan dauden euskararen erabilerarako egitasmoekin jarraitu eta 2. plangintza aldirako proposatutako konpromisoak onartu eta betetzea.
- Donostiarrei udal administrazioarekin harremanak dituztenean beren hizkuntza eskubideak betetzeko eta ezagutzera emateko behar diren baliabideak eta azpiegitura eskaintzea.
- Udalak hirugarrenen bidez kudeatzen dituen herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak behar bezala bete daitezen bermatzea.
- Udalak kanpora begira dituen harremanetan eta bere zerbitzuen beren eskumenerako alorren baitan dituzten harremanetan euskararen erabilera bultzatu eta indartzeko harremanak euskaraz nahi dituztenen errolda osatzea.

### **3.2.2.3.2 Beste administrazioak**

**Helburu estrategikoa:** herritarrek Donostian dauden bestelako administrazio publikoekin dituzten harremanetan euskara benetako komunikaziorako eta eskuarki erabiltzen den hizkuntza izan dadin ahalegintzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Donostiarrek Donostian dauden bestelako administrazio publikoekin dituzten harremanetan beren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko ekimenak bultzatzea.

#### **Ekintzak**

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzeta eta koordinazio lanak bideratzea.

### **3.2.2.4 Hedabideak eta kulturgintza**

#### **3.2.2.4.1 Prentsa, irratia, telebista**

**Helburu estrategikoa:** Donostiako mailako hedabideetan eta Donostian zabalduen direnetan

euskararen erabilera bultzatzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Euskarazko hiri mailako prentsa, irrati eta telebistaren sorkuntza eta zabalkundea bultzatzea
- Hiri mailakoak ez diren baina Donostian zabalkunde handia duten prentsa, irrati eta telebistetan euskararen erabilera bultzatu eta indartzea

#### **Ekintzak**

- Elkarlan ekonomikoen edo bestelakoen eredu diseinatzea elkarte pribatu edo antzekoekin, hiri mailako euskarazko prentsa argitaratzen, eta/edo irrati emankizunak egiten eta/edo telebista programak jaulkitzen laguntzeko.
- Hedabide desberdinekin hitzarmenak egitea, Udalari Plana bultzatzen lagun diezaioten
- Hedabideekin lankidetzak garatzea euskararen erabilera areagotu dezaten eguneroko jardueran.

### **3.2.2.4.2 Publizitatea**

**Helburu estrategikoa:** Donostiako publizitate enpresek egiten dituzten komunikazio kanpainen euskara gehiago erabil dadin ahalegintzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Euskara publizitatearen mundura “hurbiltzea”

#### **Ekintzak**

- Publizitate agentziekin hitzarmenak sinatzea, Udalarekin batera lan egin dezaten Plana bultzatzen.
- Publizitate agentzien kolektiboari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea, beren bezeroei publizitatea euskaraz egiteko aukera eskaintzera eta hartara bultzatzera animatuz.
- Hizkuntza Normalizazio plangintza bideratzeko lankidetzak hitzarmenak sinatzea publizitate agentziekin. Bere izaera berezia dela eta, itzulpen zerbitzua eskaintzea.
- Hedabide lokaletan urtean zehar eskaintako euskarazko publizitate kanpaina onenari saria ematea (publizitate etxea eta medioa saritu).

### **3.2.2.4.3 Zinea eta antzerkia**

**Helburu estrategikoa:** euskararen presentzia gehitzea Donostiako kultur ekitaldietan

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Euskara kulturako lanabes bezala erabiltzea

#### **Ekintzak**

- USEPIE: Donostia Kulturarekin lan egitea euskararen presentzia egokia bermatzeko udalak antolatzen dituen ekitaldietan
- Maiztasun handiko euskarazko prentsa laburpen bat argitaratzea eta banatzea
- Euskarazko Zinemaren eskaintza normalizatzen joatea. Programazio komertzialean aldizkakotasun iraunkorra sortzea
- Kultur munduko enpresekiko elkarlan ekonomikoaren eta bestelakoen eredu diseinatzea. Kontuan izan beharreko irizpideak
- USEPIE: Zinemaldiarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia izan dadin.
- USEPIE: Jazzaldiarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia izan dadin.
- USEPIE: Musika Hamabostaldiarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzeko udalak antolatzen dituen ekitaldietan.

### **3.2.2.5 Lan mundua**

### 3.2.2.5.1 Enpresa erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak

**Helburu estrategikoa:** lan munduan euskara erabiltzeko interesa eta kontzientzia piztu eta saritzea, bai enpresarien artean, bai langileen artean

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Lan munduko eragileek euskararen erabilera normalizatzea lortzeko prozesuan izan dezaketan eraginari buruzko sentsibilizazio kanpaina bideratzea.

**Helburu estrategikoa:** lan munduan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Enpresa elkarteetan, langile elkargoetan... euskararen erabilera bultzatzea

**Helburu estrategikoa:** lan munduko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabideak eta lanabesak eskuratzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Euskarara ikasteko eta erabiltzeko baliabideez hornitzea
- Euskararen erabilera normalizatzea lortzeko zerbitzuak daudela jakinaraztea. Zerbitzu horiek eskatzea eta erabiltzera bultzatzea

#### **Ekintzak**

- Lan munduan euskararen erabilera normalizatzearen aldeko ekimenak abiatzeko laguntza zerbitzuak daudela jakinaraztea
- Organizazioei gaztelania ez ezik euskara ere erabil dezaten laguntzea, bai beren idatzietan, bai egoitzetan, bai jendaurreko ekintzetan

### 3.2.2.5.2 Enpresa pribatua

**Helburu estrategikoa:** lan munduan euskara erabiltzeko interesa eta kontzientzia piztu eta saritzea bai enpresarien artean, bai langileen artean

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Donostiako enpresaburuek euskararen normalizatzeko prozesuan parte hartzea ahalbideratzea.
- Bezeroekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea

#### **Ekintzak**

- Enpresarien eta sindikatuen artean euskarari buruzko hitzarmenak egin daitezela bultzatzea.
- Informazio eta motibazio kanpaina, bezeroak finantza erakundeetan zerbitzuetan euskararen erabilera bultzatzeko.

**Helburu Estrategikoa:** lan munduan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Hirian eragin handia duten ekimeneetan eta jendearentzat garrantzia handia dutenetan euskara erabil dadin ahalegintzea
- Bezeroekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea

#### **Ekintzak**

- Euskararen Udal Patronatuaren eta Merkataritza Federazioaren artean lankidetzaren harremana izenpetzea

**Helburu estrategikoa:** lan munduko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabideak eta lanabesak eskuratzea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Euskara ikasteko eta erabiltzeko baliabideez hornitzea

**Ekintzak**

- Donostiako dendari eta ostalarientzat hizkuntza zerbitzu arin eta eskura erraz bat diseinatu, antolatu eta zabaltzea

### 3.2.2.5.3 Enpresa publikoa

**Helburu estrategikoa:** lan munduan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Enpresa publikoak herritarren hizkuntza eskubideak ezagutu eta onetsi beharraz ohartaraztea.

**Ekintzak**

- Donostiako Udalaren enpresa publikoetan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko batzordeak sor daitezen bultzatzea
- Osasun publikoan, Lehen Mailako Laguntzan batez ere, euskara zer egoeratan dagoen aztertzeko “lan mahai” bat antolatzea

**Helburu estrategikoa:** lan munduko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabideak eta lanabesak eskuratzea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Euskara ikasteko eta erabiltzeko baliabideez hornitzea

### 3.2.2.6 Teknologia eta telematika

**Helburu estrategikoa:** erakunde publiko eta pribatuen arteko elkar laguntzaz “idazketa elektronikoa” martxan jartzea bultzatu.

**Ekimenerako jarraibideak**

- Euskal produktuen zabalkundea
- Euskarri informatikoak erabiliaz, herritar eta udalaren arteko idatzizko harremanak bultzatzea

**Ekintzak**

- Zuzentzaile Ortografikoak aztertzea eta udal langileen esku jartzea
- Euskarazko Softwarearen katalogoa osatu eta zabaltzea
- Udal langileentzat dokumentu ereduak sortzea

**Helburu estrategikoa:** ingeniariak linguistikokoan dagoen ikerketarako ahalmena antolatu, balioztatu eta zabaltzea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Prestakuntza aurreratutako erabiltzaileen taldeak osatzea

**Ekintzak**

- Parke Teknologikoen edota egokien jotzen den kokagunean, Museoarekin batera ala ez, ingeniariak linguistikokoan espezializatutako Institutu bat



sortzeko aukera aztertzea.

- Itzulpena erraztuko duen garapena bultzatzea eta horretarako tresneria ezartzea.

### 3.2.2.7 Gizarte erakundeak, elkarte eta entitate herritarrak, kulturazkoak, ludikoak eta kirolelakoak

#### 3.2.2.7.1 Kirol elkarteak

**Helburu estrategikoa:** kirol jardueretan euskara erabiltzeko ohitura sartzea.

##### Ekimenerako jarraibideak

- Prozesu horretan parte hartzen dutenek hizkuntzaren kontzientzia hartzea
- Kiroletarako monitore euskaldunak prestatzea
- Kirol elkarteak baliabideez hornitzea
- Kiroletako berriak euskaraz zabaltzea
- Kirol federazioek horretan parte har dezaten ahalegintzea

##### Ekintzak

- Kiroletako monitore eta entrenatzaile elebidunekin kanpainak egitea
- Kanpaina orokorrak antolatzea, kirol jardueretan ohiko hizkuntza euskara izateak duen garrantziaz ohartarazteko
- Kirol jardueri ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak sartzea
- Kirol elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko, hitzarmenak sinatu eta hizkuntza normalizazio plangintzak bideratzea
- Eskola kirolaren baitan sinatzen diren hitzarmenetan hizkuntza irizpideak sartzea
- Donostiako Kirol Elkarte nagusiek plangintza honetan parte hartzea lortzea
- Euskarazko kirol teknifikazio ikastaroak antolatzea kirol monitoreentzat
- Kirol monitore eta entrenatzaileen eskura jartzea euskaraz dagoen materiala
- Kirol monitore ez elebidunak euskalduntzea
- Kirol bakoitzean erabiltzen den hizkuntzari egokitutako berariazko materiala sortzea
- Kirol monitore euskaldunen poltsa sortu eta horri buruzko katalogoa egin eta zabaltzea
- Donostiako hedabideekin hitzarmenak bideratzea kirolelako atalean euskara erabil dezaten

#### 3.2.2.7.2 Aisialdiko elkarteak eta jarduera ludikoak

**Helburu estrategikoa:** euskara pertsonen aisialdietara ere zabaltzea

##### Ekimenerako jarraibideak

- Donostian dauden aisiarako elkarten egitura bultzatzea
- Baliabideak helburuetara egokitzea
- Donostian elkarte bizitza bultzatu eta indartzea
- Zehazki antolatuta ez dagoen aisialdian eragina izatea
- Donostiako festa gunetan euskararen presentzia gehitzea

##### Ekintzak

- Euskarazko proiektu berezituak bideratzeko, Donostiako aisialdi elkarteei diru-laguntzak ematea
- Beren jardueran euskarari lehentasuna ematen dioten Donostiako aisiarako elkarten sarea osatzea
- Aisiari eta aisialdi elkarteei buruzko euskarazko aldizkari bat argitaratzeko laguntza ematea
- Aisialdiko begiraleen euskalduntzea indartzea
- Aisialdi elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak sartzea
- Udaleko Hezkuntza Sailarekiko hitzarmenak lortzea ikastetxeetako iolastokietan eskolaz kanpoko

aisialdiko ekintzak egiteko 12 urte bitarteko haurrekin (Haurrak Beti Jolasean eta Oporretan Euskaraz programen gisakoak)

- Aisian lanean diharduten begirale elebidunen poltsa eratzeko eta horri buruzko informazioa ematea
- USEPIE: KTERekin lan egitea euskararen presentzia egokia bermatzeko udalak antolatzen dituen jai, ekitaldi eta jardueretan
- Jaietako ekintzak antolatzen dituztenekin harremanetan jartzea, jaietan euskararen presentzia areagotu dezaten
- Hizkuntzarekin lotura duten zerbitzuak eskaintzea jaietako ekintzen arduradunei
- Jaietako ekintzetan euskara erabiliko duten pertsonen kontratazioarentzat diru-laguntzak ematea
- USEPIE: Kiroletako Udal Patronatuarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzeko udalak antolatzen dituen ekintzetan
- Kirol elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak sartzea

### 3.2.2.8 Euskara batuaren zabalpena eta azterketa soziolinguistikoa

#### 3.2.2.8.1 Azterketa soziolinguistikoa

**Helburu estrategikoa:** euskarak Donostian bizi duen egoerari buruzko informazio egiazkoa eta berria edukitzea aldian-aldian

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Donostian ia euskaldun diren herritarren jarrera ezagutzea
- Donostiako bilakaera soziolinguistikoa begiratu eta zaintzea

#### **Ekintzak**

- Ia euskaldun diren donostiarren euskalduntze prozesua indartzea

#### 3.2.2.8.2 Hizkuntza irizpideak lantzea eta zabaltzea

**Helburu estrategikoa:** udal zerbitzuetatik ateratzen den euskararen kalitatea hobetzea

#### **Ekimenerako jarraibideak**

- Kalitate oneko hizkuntza materialak sortzea
- Donostiako kale paisaia normalizatzea
- Euskararen erabilera indartzea
- Udal zerbitzuetan sortzen diren idatzizko materialen kalitatea ziurtatzeko barne tresneriak prestatu eta abiatzea

#### **Ekintzak**

- Diru-laguntzak jasotzen dituzten ekimen berezietan erabiltzen den euskarari dagokion guztian kalitatearen jarraipena egitea
- Teknologia berriak baliatzea, erabiltzen den euskara ona izan dadin
- Udal ordenantzetan bide publikoko errotuluetarako agindurik dagoena betetzeko prozedura zehaztu eta abian jartzea
- Harremanetan hasterakoan euskara erabiltzeko ohitura indartzeko “Lehen hitza euskaraz” lema zabaltzeko kanpainak egitea
- “Lehen hitza euskaraz” lema zabaltzeko kanpainak egitea
- Hizkuntza aholkularitzako zerbitzu bereziak sortzea: EUPen web orria eta hizkuntza telefonoa
- EUPen web orrian ondoko lanak argitaratzeko behar den tresneria erosi eta lanak digitalizatzea: kazetaritza, euskararen historia, herri literatura, hizkera, EUPen deialdietako materialak (Koldo Mitxelena, Karlos Santamaria, Euskararen Historia..)

#### 3.2.2.8.3 Erabilera berezituak eta terminologia

**Helburu estrategikoa:** Euskara premia berezietarako prestatzea

**Ekimenerako jarraibideak**

- Informazio idatzia euskaraz sortzeko ohitura zabaltzea
- Terminologiazko definizio lana indartzea

## **3.3 Euskararen erabilera normalizatzeko plana Donostiako Udalean 4. plangintza aldia (2008-2012)**

### **3.3.1 Xede nagusia**

Plangintza aldiaren xede nagusia da Donostiako Udalean hizkuntza ofizialen berdintasunera jotzea, euskara, beraz, lanerako hizkuntza izatea bere osoan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazioekin eta Donostiako Udaleko barruko lan-hizkuntzaz.

Helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formalek berdintasun egiazkorantz joatea da, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti, eta hain zuzen ere, horrexegatik eta horretarako bermatuz hizkuntza erabiltzeko aukera-berdintasuna.

### **3.3.2 Helburu orokorrak**

- Donostiako Udalak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera osotasunean bermatzea.
- Irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean bermatzea.
- Euskararen ahozko erabilera areagotzea, herritarrekiko jarduna erabat bermatuz eta Udal barruko lan harremanetan erabilera handituz.
- Euskararen idatzizko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanez.
- Langileen hizkuntza gaitasuna handitzea.

### **3.3.3 Eragin-esparruak**

#### **3.3.3.1 Hizkuntza gaitasuna**

##### **Helburuak**

- Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotu.
- HE egiaztatua dutenen eta, orokorrean, langile guztien euskara maila hobetu.
- Arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetu.

#### **3.3.3.2 Ahozko komunikazioak**

##### **Helburuak**

- Ahozko kanpo harremanetan herritarren hizkuntza aukera bermatu.
- Ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu

### 3.3.3.3 Idatzizko komunikazioak

#### Helburuak

- Idatzizko kanpo harremanetan herritarren hizkuntza aukera bermatu, kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- Idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu, kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

### 3.3.3.4 Itzulpenak

#### Helburuak

- Idatzizko komunikazioetan euskarazko sortze lana gehitu.

### 3.3.3.5 Langileen prestakuntza orokorra

#### Helburuak

- Idatzizko komunikazioetan euskarazko sortze lana gehitu.

### 3.3.3.6 Tresna eta aplikazio informatikoak

#### Helburuak

- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu

### 3.3.3.7 Internet eta Intranet Sareak

#### Helburuak

- Internet eta Udal barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia gehitu.

### 3.3.3.8 Argitalpenak

#### Helburuak

- Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.

### 3.3.3.9 Hizkuntza paisaia (errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak)

#### Helburuak

- Erakunde barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitu.
- Administrazioaren eraginpeko bide seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera bermatu.

### 3.3.3.10 Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

#### Helburuak

- Iragarpen, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu.

### 3.3.3.11 Diru-laguntzak

#### Helburuak

- Hizkuntzaren erabilera kontuan izan diru laguntzak esleitzerakoan.

### 3.3.3.12 Kontratazio administratiboak

**Helburuak**

- Kontratazioaren fase guztietan (txertatzea, betetzea eta jarraipena egitea) hizkuntza baldintzak betetzen direla bermatu.

**3.3.3.13 Udal instalazioen eta materialen erabilera****Helburuak**

- Udal instalazio zein materialak erabiltzen direnean, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

**3.3.3.14 Jarduerak bide publikoan****Helburuak**

- Bide publikoan egiten diren jardueretan euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzea.

**3.3.3.15 Udalak lagatako lokalak****Helburuak**

- Udalak lagatako lokaletan, barnean zein kanpoan, errotulazioa eta oharrak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egongo direla bermatzea.

## **4. Donostiako euskara-** **planen laburpena**

## **4.1 Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2011-2015 eta Euskararen Ekimen Estrategikoak**

### **4.1.1 Irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea**

20. taulan eta 13. grafikoan ikusi dugunez, A ereduko matrikulazioak nabarmen egiten du gora Batxilergoan, Hezkuntza Berezian eta Lanbide Heziketan, eta, ondorioz, D ereduak behera egiten du, azken bietan batez ere. Egoera horri aurre egiteko, Donostiako Euskararen Plan Orokorrek euskarazko eskaintza handitzea du helburu. Helburu hori lortzeko bidean, ikasle-kopurua handitzea, euskararen kalitatea areagotzea eta euskararen erabilera normalizatzea ezinbesteko jotzen ditu, eta, horretarako, kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak, aisialdiko ekintza euskaldunak, kultur jardueren programa euskaldun iraunkorra eta euskarazko tresna eta baliabideak baliatzea aurreikusten du.

Unibertsitate-mailako ikasketei dagokienez, bildutako datuetan zehatz-mehatz agertzen ez den arren, ezin ahantz dezakegu unibertsitate-ikasketak gaztelaniaz egiteko joera dela oraindik ere gure hirian joera nagusia. Horrexegatik, Donostiako Euskararen Plan Orokorrek unibertsitate mailako hezkuntzan euskararen erabilera normalizatuko duen prozesu bat abiarazi nahi du. Hori lortzeko, sentsibilizazio kanpaina baten beharra argi ikusten du, eta, gainera, prozesu hori aurrera eramateko behar diren giza eta teknika baliabideak indartzeko asmoa du. Ikasmateriala euskaraz argitaratzeko laguntzak ematea da bidean finkatu duen lehen ekintza.

Helduen euskalduntze alfabetatzea sustatzeko estrategia argi eta garbi markatzen du Donostiako Euskararen Plan Orokorrek: euskalduntze eta alfabetatzean diharduten ikastegiekin elkarlanean jardutea. Asmo horrekin, komunikazio-kanpainak, materiala argitaratzeko laguntzak eta euskara ikasteko diru-laguntzen politika berri bat ezarri ditu ekintza nagusi modura, eta, gainera, "Euskara ikaslearen txartela" sortzea proposatu du, kultura txartelaren antzera erabiltzeko.

Irakaskuntzarekin loturik, etorkinak ere kontuan hartu ditu plan honek, ezin baitugu ahaztu ia 13.000 atzerritar ditugula hirian, eta horiek euskalduntzea erdaldunak euskalduntzea bezain garrantzitsua dela.



### 4.1.2 Familia

Familiari dagokionez, bi dira Donostiako Euskararen Plan Orokorrak dituen helburuak: Donostiako familietan euskararen erabilera sendotzea eta euskararen familia transmisioa bermatzea. Horretarako, uztartu beharreko bi bide ezarri ditu: batetik, familiako kideek euskaraz duten gaitasuna indartzea eta, bestetik, hizkuntzaren transmisioak eta normalizazio linguistikoak duten garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Guzti hori burutu ahal izateko, hainbat hitzarmen, kanpaina eta batzorde berri baliatuko ditu plan honek, familiarekin loturiko hainbat gaitan aritzen diren elkarteekin. Gainera, hainbat baliabide landuko ditu familiako barne bizitzan euskararen erabilera areagotzeko.

### 4.1.3 Lan mundua

5. taulan ikusi dugun moduan, administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna alde batera uzten baditugu, Donostian zerbitzuen sektorea da nagusi lan-kontuetan, merkataritza garraioa eta ostalaritza bereziki. Hori kontuan harturik, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak leku berezia eman dio alor honi. Hain zuzen ere, helburu eta erronkak zehazterakoan hiru alor berezi ditu plan honek: enpresa erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak; enpresa pribatua; eta enpresa publikoa. Hiru alor horietan, lehen helburua euskara erabiltzeko interesa eta kontzientzia bultzatzea da, eta, horretarako, sentsibilizazio-kanpainak, hitzarmenak, normalizazio-batzordeak eta lan-mahaiak sortzea aurreikusi da. Horrez gain, enpresa erakunde, sindikatu, elkargo profesional eta enpresa pribatuen kasuan, euskararen erabilera piztu eta saritzeko bideak abiaraztea ere mahaigaineratu da. Bestalde, hiru alor horietan euskararen erabilera bultzatzeko behar diren baliabideak hornitzea ere ezarri da erronka modura, batez ere enpresa horiek euskara ikastearekin eta erabiltzearekin loturik. Ostalari eta dendarien kasu zehatzean, helburuak lortzeko ekintza jakin bat ere planteatu da: hizkuntza zerbitzu arin eta eskura erraz bat diseinatu, antolatu eta zabaltzea; eta enpresaburuei dagokienez, prozesu parte-hartzaile bat abiatzea ere azaleratu da. Gainera, garrantzia berezia eman zaie hirian eragin handia duten eta jendearentzat garrantzia handia duten ekimenei,

haietan guztietan euskara erabil dadin bultzatzeko. Azken helburu horri loturik, paper sendoa jokatzeko du Merkataritza Federazioak, eta federazio horren eta Udal Patronatuaren artean lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea proposatu da.

#### **4.1.4 Aisia**

Aisiari erabat loturik dagoen hiria da Donostia, aurreko puntuan genionez zerbitzuena baita hiriko sektorerik nagusia. Hori dela eta, hiru erronka nagusi ezarri dira Donostiako aisian euskara normalizatzeko: aisialdiko ekintzatan euskarazko eskaintza areagotzea, euskarazko ekintzen eskaera sustatzea eta aisialdiko eragileek euskara komunikazio hizkuntza moduan gehiago erabiltzea. Euskararen zabalkunde hori lortzeko jarraitu beharreko lehen bidea Donostiako aisia-elkarteen egitura bultzatu eta elkarte-bizitza indartzea da. Horretarako, lehen ekintza aisialdi-elkarteei diru-laguntzak ematea da, eta, gainera, euskarari lehentasuna ematen dioten elkarten sare bat sortu nahi da. Halaber, aisialdi elkarteei (guztiei) ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak sartzeko zehaztu da, eta hiriko jaietako ekintzetan euskara erabiliko duten pertsonen kontratazioarentzat diru-laguntzak emango dira. Jaiekin jarraituz, hizkuntzarekin lotura duten zerbitzuak eskainiko zaizkie jaietako ekintzen arduradunei, eta KTEekin batera lan egingo da udalak antolatutako jai, ekitaldi eta jardueretan euskararen presentzia egokia bermatzeko. Horrez gain, aisialdiko ekintzei dagokienez, begirale elebidunen poltsa bat sortuko da, eta poltsa horri buruzko informazioa zabalduko da begiraleak kontratatzen dituzten artean.

#### **4.1.5 Kirola**

Aisiaren kasuan bezalaxe, hiru erronka nagusi ezarri dira Donostiako kirolean euskara normalizatzeko: kirol ekintzatan euskarazko eskaintza areagotzea, euskarazko ekintzen eskaera sustatzea eta kirol eragileek beren jardueretan euskara komunikazio hizkuntza moduan gehiago erabil dezaten lortzea. Gainera, kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetu nahi dira, eta leku berezia eman zaie eskola kirolari eta kirol federatuari. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da Kirol Patronatuarekin eta gainerako erakunde eta elkarteekin lankidetzan

aritzea. Helburu orokor horiek guztiak lortzeko bidean, aurreko gaietan zehaztutako bide bertsuak zehaztu dira kirol-arloan ere: kontzientziazio-kanpainak egitea, prestakuntza euskalduna erraztea (kasu honetan, kiroleko monitoreentzat) eta baliabideak hornitzea (euskarazko materiala, material berezitua). Eta, gainera, kirol federazioek prozesu honetan parte har dezaten ere sustatu nahi da. Horretarako, kirolean euskara erabil dadin hitzarmenak sinatzea da asmoa. Aisiaren alorrean gertatu bezala, kirol-arloan ere monitore euskaldunen poltsa sortu nahi da, eta, sortutakoan, monitoreak kontratatzen dituztenen artean zabaldu nahi da. Horretaz guztiaz gain, Udalak kirol jardueri ematen dizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak sartzea aurreikusten da, eta eskola kirolean sinatzen diren hitzarmenetan ere hizkuntza irizpideak txertatuko dira.

#### 4.1.6 Kulturgintza

Kulturgintzaren arloan, oso loturik dauden bi helburu nagusi aipatzen ditu Donostiako Euskararen Plan Orokorrak: batetik, Donostian euskarazko kultur produktu eta ekimenen eskaintza eta kontsumoa sustatzea, eta, bestetik, euskararen presentzia gehitzea Donostiako kultur ekitaldietan. Hiriko kultur ekitaldi garrantzitsuenetan komunikazio-hizkuntza euskara izatea bilatzen du Udalak. Gainera, plan hau amaitutakoan, Europako Kultur Hiriburu izango da Donostia(2016), eta proiektu horretan euskara komunikaziorako tresna eraginkor izatea aurreikusten du plan honek. Hori guztia lortzeko, Udalak hiriko kultur elkarteekin lankidetzan aritzea du helburu, bere eskaintza elkarte horienekin osatzeko eta elkarte horien lana koordinatzeko (Donostia Kultura da elkarte horietatik garrantzitsuenena). Zinemarekin loturik ere ezarri du plan honek bere helburua: euskarazko zinemaren eskaintza areagotu eta normalizatu nahi du, eta, horretarako, gai horretan eskumena duten eragile eta erakundeekin elkarlana baliatuko du. Euskarazko zinemaz gain, euskarazko azpitoluak ere sustatuko ditu. Donostia kulturaz beteriko hiria dela gauza jakina da, eta urtero-urtero hiru jaialdi handi izaten dira hirian: Zinemaldia, Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia. Plan honen beste helburuetako bat da jaialdi horiekin lan egitea, euskararen presentzia egokia izan dadin.

#### 4.1.7 Komunikabideak eta publizitatea

Arlo honetan ere, bi dira plan honen xedeak: euskarazko komunikabideak lagundu eta herritarren artean sustatzea eta Donostia mailako hedabideetan eta Donostian zabalduen direnetan euskararen erabilera bultzatzea. Asmo hori burutzeko, euskarazko tokiko komunikabideekin elkarlana areagotzeaz gain, Udalak diru-laguntzak emango ditu euskararen erabilera sustatzeko eta eskaintzen diren produktu komunikatiboen erakargarritasuna, funtzionalitatea eta zabalkundea hobetzeko. Horretarako guztirako, ezinbestekoa izango da Plan hau gauzatzeko hitzarmenak sinatzea, sentsibilizazio-kanpainak egitea eta itzulpen-zerbitzuak eskaintzea, eta, gainera, pizgarri moduan, hiriko hedabideetan urtean zehar eskainitako euskarazko publizitate kanpaina eta publizitate-etxeak sarituko dira.

#### 4.1.8 Hizkuntza-baliabideak

Orain arte aipaturiko alor guztietan zehaztu diren jarraibide eta helburuak betetze aldera, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak hizkuntza baliabideak eskaini eta sustatzeko zehaztapenak ere ezarri ditu. Hasteko, kanpo komunikazio idatzietan euskararen erabilera areagotzeko, hizkuntza zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko helburua mantendu nahi du Udalak (besteak beste, kontsulta, itzulpen eta zuzenketa zerbitzua). Gainera, udal zerbitzuetatik ateratzen den euskararen kalitatea hobetu nahi du, kalitate oneko hizkuntza materialak sor daitezen, kale paisaia normalizatu dadin, euskararen erabilera indartu dadin eta, lehen esan bezala, idatzizko materialen kalitatea ziurtatu dadin. Horretarako, diru-laguntzak jasotzen dituzten ekimen berezietan euskararen kalitatearen jarraipena egingo da, eta hizkuntza aholkularitzako zerbitzu bereziak sortuko dira. Gainerako alorretan gertatu den moduan, hizkuntza baliabideen alorrean ere sentsibilizazio kanpainak jarriko dira martxan: bat aipatzearren, "Lehen hitza euskaraz" lema zabaltzeko kanpainak egingo dira, harremanetan hasterakoan euskara erabiltzeko ohitura indartu dadin. Arestian aipaturiko kalitatea bermatzeko asmoz, hiriaren berezko hizkuntza ondarea berreskuratu, landu eta gizarteratu nahi da, eta ondare horren erabilera komunikatiboa sustatu nahi da, horretarako hainba erregistro eta kanal landuz. Halaber, euskarak Donostian bizi duen egoerari buruzko informazio egiazkoa eta berria edukitzeko

apustua egin da, azterketa soziolinguistikoak baliatuz, donostiarren euskararekiko jarrerak ezagutu eta euskalduntze prozesua indartzeko xedearekin. Gainera, bizi dugun garaian suspertzen ari diren teknologia-arlo berriei ere bultzada eman nahi zaie, eta, horretarako, IKT berrietan euskararen erabilera areagotzeko produktu eta aholku-zerbitzuak garatu nahi dira. Abiapuntu gisa, herritarren eta udalaren arteko euskarazko idatzizko harremanak sustatu nahi dira, eta, hori lortzeko, zuzentzaile ortografikoak, euskarazko softwarea eta dokumentu ereduak gordailua jarri nahi dira udal langileen eskura. Orain arte aipaturiko guzti horren helburua da informazio idatzia euskaraz sortzeko ohitura zabaltzea.

#### **4.1.9 Euskararen motibazioa eta sustapena**

Ikusi dugu sentsibilizazio eta motibazio kanpainak beharrezkoak direla alor guztietan finkatu diren helburuak lortzeko. Izan ere, ezinbestekoa da herritar guztiek euskararen balio praktikoa bereganatzea. Udalaren helburu nagusietako bat da euskara hiriko kultur ondarearen elementu nagusienetako bat bezala kokatzea, eta, horri esker, euskararen ezagutza eta erabilera praktikoa erreala sustatzea. Bizi dugun elebitasun egoera konplexu honek ezinbestean eskatzen ditu gizartean ematen diren egoera desberdinak kudeatzeko estrategiak diseinatu eta eskaintzea, eta, aldi berean, ezinbestean eskatzen du herritar guztiei ematea soziolinguistikari buruzko zenbait azalpen oinarritzko.

## 4.2 Euskararen erabilera normalizatzeko plana Donostiako Udalean

Plan honen helburu nagusia da Donostiako bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik benetako berdintasunerantz joatea, donostiarron hizkuntza-aukera errespetatuz, eta Udalaren irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia erabat bermatzea. Hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da zenbait esparrutan eragitea, eta horretarako landu da Udal barruan aplikatzekoa den "Euskararen erabilera normalizatzeko plana Donostiako Udalean". Laugarren plangintza aldia bizi du plan honek (2008-2012), eta jarraian aipatuko diren esparruetan eragitea du jomuga.

Hasteko, hizkuntza-gaitasuna hobetzeko apustua egiten du plan honek, eta, horretarako, zenbait erronka ezarri ditu. Hizkuntza-eskakizunekin loturik, eskakizun horien egiaztapenak areagotzea da asmoa, eta dagoeneko eskakizuna egiaztatua dutenen eta, orokorrean, langile guztien euskara maila hobetu nahi da. Gainera, arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetzea ere aurreikusi da.

Hizkuntza-gaitasun horren barruan, ahozko komunikazioari ere garrantzia eman zaio, izan ere, ahozko kanpo harremanetan ezinbestekoa baita herritarren hizkuntza aukera bermatzea. Halaber, ahozko barne harremanetan, euskararen erabilera gehitu nahi da. Ahozkotasunaz gain, idatziko komunikazioak ere landu dira plan honetan, eta idatzizko kanpo harremanetan herritarren hizkuntza aukera bermatzeaz gain, aukera hori kalitatez eta edozein euskarritan eskaini beharra finkatu da.

Euskarazko sortze lana gehitzea da asmoa, baina komunikazioa euskaraz gertatzen ez den kasuetan, idatzizkoan zehazki, komunikazio itzulpena bermatu behar da. Esan bezala, helburu nagusia euskarazko sortze lana gehitzea da, eta, horretarako, ezinbestean bermatu behar da udal-langileen prestakuntza orokorra.

Udaleko barne-komunikazioan euskararen erabilera gehitu ahal izateko, langileei euskarazko tresna eta aplikazio informatikoak jarri behar zaizkie eskura, eta horien erabilera areagotzeko lan egin behar da. Halaber, Interneten eta Udal barruko sarean (intraneta), euskararen presentzia gehitu behar da.

Udalak egiten dituen argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea da beste

helburuetako bat, eta, era berean, Udaletik martxan jartzen diren iragarpen, publizitate eta kanpainetan ere euskarak presentzia handiagoa izan dezan lan egin behar da. Errotulazio finkoei eta noizbehinkako oharrei dagokienez ere, lortu behar da Udal barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitzea eta administrazioaren eraginpeko bide seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan ere euskararen erabilera bermatzea.

Ekonomiari loturik, Udalak ematen dituen diru-laguntzetan derrigor hartu behar da kontuan euskararen erabilera, eta kontratazio administratiboen fase guztietan bermatu behar da eskatzen diren hizkuntza-baldintzak betetzen direla.

Udalak dituen instalazio eta materialak erabiltzean, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar da, hizkuntza-aukeraren arabera, eta Udalak lagatzen dituen lokaletan, errotulazio eta oharrek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dute.

Azkenik, bide publikoan egiten diren jarduera guztietan bermatu behar da euskara edo euskara eta gaztelania biak erabiltzen direla.

## **5. Balorazioa**



### 5.1 Planen indarraldiak

Donostiako Udalak euskararen normalizazioan aurrera egiteko bi plan ditu martxan, Donostiako Euskararen Plan Orokorra eta Euskararen Erabilera Normalizatzekeo Plana Donostiako Udalean. Lehena, 2011-2015 aldirako plana da, laurteko horretan aplikatzeko diseinatua; bigarrena, berriz, 2008-2012 aldirakoa. Planek, beraz, laurteko indarraldia dute, eta epe hori igarotakoan, planen balorazio orokorra egin eta hurrengo aldikoak diseinatu eta martxan jartzen dira. Laurteko bakoitzeko planetan zehazten dira balorazioa egiteko irizpideak, eta horietako batzuk, epealdi osoan zehar egiten dira, etengabe.

Aipaturiko plan horiek erabat uztarturik daude; izan ere, lehenengoak hiriko gai orokorretan euskarak bizi duen egoerari lotuak daude, eta, bigarrena, aldiz, Udaleko funtzionamenduan euskarak duen paperari lotzen zaio. Udaleko euskararen erabilerak duen garrantzia dela eta diseinatu da aparteko plan bat, pisu nabarmena duen gaia delako.

Udalak martxan dituen planen indarraldiei dagokienez, ez zait guztiz egokia iruditzen indarraldiak denboran bat ez etortzea. Azken batean, lehen esan bezala, plan bakoitzaren indarraldia bukatzean balorazio orokor bat egiten da, eta egokiago ikusiko nuke bi planak aldi berean amaitu, eta euskarak hiriko alor guztietan bizi duen egoeraren balorazioa egitea. Izan ere, denok dakigu gauza guztiek izaten dutela beren bilakaera, unean uneko egoerak aginduta, eta, agian, gerta daiteke uneren batean ohartzea orain martxan dagoen planen banaketa hori aurrerantzean aldatu egin beharko litzatekeela. Puntu horretara iritsiz gero, komenigarriagoa litzateke ordura arte martxan zeuden planak erabat buruturik egotea, finkatutako prozesua amaitua egon dadin, eta, hala, ondorioak prozesu osoaren baitan atera ahal izateko.

Iraupen-aldiak zehazterako orduan, iruditzen zait badagoela kontuan hartu beharreko beste puntu bat ere: udal-gobernuen indarraldiak. Lau urtetik behin izan ohi dira, normalean, udal-hauteskundeak, eta, azken hogeitertan joera udal-gobernua

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

mantentzea izan den arren (PSEE zen buru), iaz, 2011n, errotik aldatu zen gobernu (Bildu izan zen garaile). Hori dela eta, oso kontuan hartzekoa iruditzen zait gobernu-aldaketek martxan dauden planetan, kasu honetan euskararen normalizazioa sustatzeko planetan, duten eragina. Zer litzateke egokiagoa, euskararen normalizazioa sustatzeko planen indarraldia udal-gobernuen indarraldiarekin batera amaitzea ala indarraldi horiek tartekatzea? Azter dezagun. Hasiera batean, pentsa daiteke egokiena udal-gobernu batek plana hasieratik bukaerara bitartean gauzatzea litzatekeela onena. Izan ere, talde berak helburu eta ekintzak zehaztu eta denbora igarotakoan balorazioa egin ahal izatea, ezin egokiagoa litzateke, planaren funtzionamendua osotasunean bermatzeko. Baina horrek badu arrisku bat, edo pare bat, behintzat. Batetik, plana diseinatu eta garatu duen udal-gobernuak berak egiten badu plan horren balorazioa udal-hauteskundeen aurretik, zeinek bermatzen digu emaitza negatiboen berri benetan emango dutenik? Gainera, jo dezagun denbora-tarte batean lau urtetik lau urtera udal-gobernuia aldatzen dela. Gobernuaren ezegonkortasun hori onuragarria al litzake euskararen normalizazioa sustatzeko planen epe luzeko eraginkortasunerako? Ez al luke, bada, gobernu bakoitzak bere ideien mesedetan diseinatuko plana? Eta horrek ez al luke hautsiko aurreko indarraldian martxan jarritako planaren eraginkortasuna? Hortaz, agian komenigarriagoa litzateke euskara sustatzeko planen indarraldiak eta udal-gobernuen indarraldiak denboran bat ez etortzea, guztion arteko kolaborazioa ahal den neurrian behintzat bermatzeko.

## 5.2 Irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea

Irakaskuntzari dagokionez, ikusi dugu Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza direla D ereduan matrikulazio handiena duten hezkuntza-etapak. Aldiz, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, handiagoa da A ereduko matrikulazioa D ereduko baino, eta Lanbide Heziketan zehazki, B eta D ereduak elkartuta ere ez dira iristen A ereduaren matrikulazioaren erdira.

Donostiako Udalaren euskaraz.net gunean irakurri daitekeenez, hiriaren egoera soziolinguistikoa kontuan harturik orain arte egin diren ikerketek eta orain arteko

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

esperientziek erakutsi dute D ereduak bermatzen duela elebitasunik orekatuena. Eta elebitasun orekatua denez hizkuntza-plangintzaren helburuetako bat, Udalak zenbait sentsibilizazio-kanpaina jarri ditu martxan: haur jaioberrien gurasoentzako kanpaina, esaterako. Gainera, Donostiako Euskararen Plan Orokorrean zehazten da ahalegin handia egingo dela Batxilergoan eta Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza handitzeko. Horrez gain, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak ere egingo dira gazteek eta haien gurasoek eguneroko bizitzan, hezkuntzan kasu honetan, euskara erabil dezaten. Gainera, gazteen aisialdirako proposamenak egiten dira, hainbat kultura-eragilerekin lankidetzan, gazteen aisialdia euskararekin lotu dadin.

Euskarazko matrikulazio baxuena duten bi etapa horiez gain, gainerako etapetarako ere martxan ditu Donostiako Euskararen Udal Patronatuak zenbait ekintza: Auzoka eskola aldizkaria, Oporretan euskaraz, Eskola antzerkia, Haurrak beti jolasean, Koldo Mitxelena literatur saria, Aisialdiko astebururako eskaintza...

Oro har, ekintza zehatz eta osatuak eskaintzen ditu Udalak Donostiako hezkuntzan euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Baina, Unibertsitateari eta Lanbide Heziketari dagokionez, ikusten diot hobetu beharreko alor bat. Sentsibilizazio-kanpainak eraginkorrak direlakoan gaude, eta, askotan, izan badira. Baina iruditzen zait sentsibilizazio-kanpainen igorlean dagoela kanpainaren eraginkortasunaren mamia. Esan nahi dudana da eraginkortasun handiagoa ala txikiagoa izango duela sentsibilizazio-kanpaina batek igorlearen arabera. Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren azken helburua jendea lanerako prestatzea da, eta langile horiek enpresa eta erakundeek kontratatuko dituzte. Hortaz, garrantzitsua iruditzen zait gazteak euskaraz ikastera bultzatzeko kanpainetan kontratugile izango diren enpresa eta erakundeak inplikatzeko.

### **5.3 Familia**

Familiari buruz hitz egitean, euskararen etxeko erabilerari buruz ari gara, ama-hizkuntzari buruz, hizkuntza-transmisioari buruz. Eta, noski, horrek guztiak hizkuntza-gaitasunari buruz hitz egitera garamatza oinarri-oinarrian.

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Denboraren poderioz, elebitasun-mailak nabarmen egin du gora (20 urtean, 14.32 puntu hazi da elebidunen kopurua). Halaber, erdaldun elebazarren kopurua beheraka doa etengabe. Datu positiboak dira inondik ere, baina oraindik Donostiako biztanleen erdia ere ez da elebidun osoa. Hizkuntza-gaitasunean aurrera egiteko, irakaskuntzarekin eta euskalduntze-alfabetatzearekin loturiko zenbait ekintza planteatu dira Donostiako Euskararen Plan Orokorrean, eta urtetik urtera ikusten da ahalegin horien emaitzak positiboak direla.

Ama-hizkuntzari eta etxeko hizkuntza-transmisioari dagokionez aldiz, datuak ez dira hain positiboak. Herritarren % 69.32ren ama-hizkuntza gaztelania da oraindik ere, eta euskara herritarren % 20,52ren ama-hizkuntza da soilik. Hala ere, orain arte bizi ez dugun egoera bat bizi dugu egun, eta oso kontuan hartzekoa da: elebidun berrien gorakada bizi dugu, euskara eskolan jaso, ikasi eta barneratu duten elebidunen gorakada. Eta, lehen aldiz, elebidun berri horietako multzo handia seme-alabak izateko sasoian dago. Datuek diote elebidun horiek seme-alabei etxean euskara transmititzeko joera dutela. Hori hala izanik, ama-hizkuntza gaztelania izanik elebidun izatera pasa diren guraso horietatik ama-hizkuntza euskara izango duten elebidunak sortuko dira, eta, beraz, esan genezake badaudela zantzuak pentsatzeko ama-hizkuntza euskara duten herritarren kopuruak gora egingo duela pixkanaka. Hortaz, komenigarria iruditzen zait ama-hizkuntzaren gaian ahalegin berezia egitea, ondorengoengan baitago euskararen itxaropen ia guztia.

### 5.4 Lan-mundua

Lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu lan-munduari buruz hitz egitean, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak hiru azpisail bereizten dituela: enpresa erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak; enpresa pribatuak; eta enpresa publikoak. Kontuan hartu behar da administrazio publikoa, eta, oro har, Udaleko langileria ez dituela sail honetan sartzen; izan ere, udal-langileriari plan zehatz bat eskaintzen dio. Bereizketa hori positiboa iruditzen zait, Udalak erreferentzia izan behar baitu hiriko gainerako enpresa eta erakunde guztientzat, eta, horrexegatik, ahalegin

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

berezia egin behar da Udalaren euskalduntze-prozesuan.

Enpresa publikoari dagokionez, ikusi dugu ohartarazpen-prozesu bat abiatzea proposatzen duela Donostiako Euskararen Plan Orokorrak, eta, horretarako, batzordeak eta lan-mahaiak antolatzea du helburu. Gainera, sektore publikoko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabide eta lanabesak ematea ere aurreikusten du. Hona, bada, nire zalantza: Udalak hiria euskalduntzeko erabakia hartua badu, euskalduntze-prozesuan murgildua badago eta erabat onartzen badu beharrezkoa dela hiria euskalduntzea, euskararen aldeko portaerak saritu beharrean, zergatik ez dira zigortzen euskararen alde egiten ez dutenak, behinik behin enpresa publikoetan? Denbora-tarte bat utzi beharko zaie, noski, enpresa horiei prozesua burutu ahal izateko, eta Udalak ahal duen baliabide guztiak hornitzen jarraitu beharko du, noski, baina ezinezkoa al da euskara legearen barruan sartzea? Ala euskarak aukerako gaia izaten jarraitu behar du?

Lan-munduari loturik, Bai Euskarari Ziurtagiria ere osagarri ona da hiriko enpresen euskalduntzean eragiteko. Ez da Donostiako Udalak sorturiko ziurtagiria, baina hiriko enpresa, erakunde eta elkarteetan eragin zuzena du. Gai honi dagokionez, bada, badut hirian aplikatu litekeen proposamen bat: euskararen normalizazioaz hitz egitean, sarritan aipatzen da euskararen aldeko hautu kontzientea egiteko beharra. Hala, bada, kontsumitzaileon esku dago, arlo sozio-ekonomikoari dagokionez, kontsumitzen ditugun produktuetan (dela kaleko erabiltzaile arrunt gisa, dela gure lanpostuagatik kontratatuko ditugun enpresa, elkarte edo entitateekin loturik) euskaraz kontsumitzeko hautua egitea. Bai Euskarari Ziurtagiria laguntza handia da hautu kontziente hori egiteko orduan, adierazten baitigu halako enpresak euskararen alde ahaleginik egiten duen ala ez. Hori dela eta, egoki deritzot gure hirian ziurtagiri hori duten enpresa, elkarte eta erakundeekin gida moduko bat egitea. Gaur egun teknologiak eskaintzen dituen aukerei esker, ez litzateke zaila izango ziurtagiria duten entitateen datu-base bat egin, eta, iragazkien bidez, herritarrei aukera ematea hainbat irizpideren arabera entitate horiek ikusteko. [www.donostianshopping.com](http://www.donostianshopping.com) orrian eginda dagoen denda-sailkapenaren antzeko zerbait litzateke, baina euskararen alde lan egiten duten enpresa, elkarte eta erakundeekin.

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Horrez gain, badakigu Donostian zerbitzuen sektorea dela nagusi, turismotik bizi garela gehienbat, eta urtero-urtero milaka kanpotarren bisita izaten dugula. Kanpotik datorren jende horrek guztiak izugarri mugitzen du hiriko lan-mundua, eta, horrexegatik, iruditzen zait ahalegin berezia egin behar dela kanpotik datorren jende horrek hiriko hizkuntza-egoera gaztelania eta euskararekin uztar ditzan.

### 5.5 Aisia

Aisiari buruz hitz egitean, garrantzitsua iruditzen zait nolabaiteko bereizketa egitea Donostiako herritarrei zuzendutako aisiaren eta oportetan etortzen diren kanpotarrei zuzendurikoen artean. Izan ere, arestian esan bezala, zerbitzuen sektoretik bizi da, gehienbat, Donostia, eta horrek eskutik dakar aisia, ezinbestean. Aisialdiarekin loturiko era guztietako ekintzak ditugu hirian urte osoan zehar, eta ez nolana hikoak gainera. Esan nahi dut ekintza horietako asko mundu mailan ezagunak direla, besteak beste, Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia eta Su Artifizialen Lehiaketa.

Hala ere, donostiarroi zuzendutako aisian euskara sustatzeko ezarri diren ekintzei buruz hitz egingo dut lehendabizi. Ikusi dugunez, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak garrantzia berezia eman dio aisia eta euskara lotzen dituen atalari, eta, egia esanda, iruditzen zait ondo egituratu eta bideratu duela plana alor honetan. Hasteko, oso eraginkorra iruditzen zait aisi-elkarteen egitura bultzatzea, eta, batez ere, elkarte-bizitza indartzea. Gainera, euskarari lehentasuna ematen dioten elkarten sare bat sortzeak abantaila ugari dituela iruditzen zait, bai elkarte horien funtzionamendurako (elkarren artean komunikatzeko, bizipenak partekatzeko, laguntza eskatu eta eskaintzeko), bai eta herritarrek aisi-aukera egitean euskararen irizpidea kontuan hartu ahal izateko. Ikusi dugu Udalak, bere planea, euskara sustatzen duten elkarteei diru-laguntzak ematea aurreikusten duela, baina planean ez da espresuki azaltzen diru-laguntza horiek zertara bideratzekoak diren. Hala, bada, agian egokia litzateke diru-laguntza horien bidez aisialdiko euskarazko eskaintza herritarrei merkexego eskaini ahal izatea, abantaila

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

ekonomikoa izan dezaten aisialdiko produktuak euskaraz kontsumitzea erabakitzen duten erabiltzaileek. Aisialdiko ekintzetan euskara erabiliko duten langileak kontratatzeko diru-laguntzak ematea ere oso egokia iruditzen zait, eta begirale elebidunen poltsa bat sortzeak ere eragin handia izan lezake poltsa horretatik kanpo gelditzen den jendea motibatzerako orduan.

Lehen esan bezala, Donostiako herritarrei zuzenduriko aisi-ekintzez gain, urte osoan zehar aisiarekin (eta kulturarekin) loturiko hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dira hirian, eta horiek ere garrantzia berezia dute euskararen aldeko prozesuan. Izan ere, eta dagoeneko esan dudanez, ekintza horietako batzuk oihartzun handia dute hemendik kanpo ere, eta oihartzun hori eta hirian urte osoan izan ohi diren bisitari-kopurua kontuan izanda asko zaindu beharreko kontua iruditzen zait ekintza horietan guztietan euskarari merezi duen lekua ematea. Donostiako Euskaren Planak kulturari eskaintzen dion tartean ikusi dugu jasota dagoela Zinemaldiarekin, Jazzaldiarekin eta Musika Hamabostaldiarekin lan egitea euskararen presentzia egokia bermatzeko.

## 5.6 Kirola

Kirol munduan, oro har gaztelania erabili izan da orain artean gehien gure inguruan, eta, horrexegatik, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak kirol-arloan ezarri duen helburu nagusienetako bat da kirol-jardueretan euskara erabiltzeko ohitura sartzea. Horretarako, kontzientzia hartzeko beharra azpimarratu da, eta, gainera, kirol-jardueretan diharduten profesionalak euskara-mailan prestatzeko beharra ere nabarmendu da. Garrantzitsua iruditzen zait azken puntu hori; izan ere, kirol-ekintzetako kontsumitzaileek kirolean euskaraz aritzeko ohitura har dezaten, ezinbestekoa baita eredu onetatik ikastea. Benetan garrantzitsua iruditzen zait kirola euskalduntzeko prozesu horretan batasunez aritzea, material bateratuak landu eta zabalduta, esaterako.

Horrez gain, aisiaren alorrean aipatu bezala, oso egokia iruditzen zait kirolean ere monitore euskaldunen poltsa bat sortu eta zabaltzea, bai eta elebidunak ez diren monitoreak euskalduntzen ahalegina egitea. Halaber, planean zehaztuta dago kirol-

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

jarduerei ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza pleguetan hizkuntza-irizpideak sartzea, eta, beste behin ere, egoki joko nuke euskarazko kirol-aukerak abantaila ekonomikoak izatea herritarrentzat.

Donostia mailan indar handia dute bai Eskola Kirolak bai eta kirol federatuak ere, eta kontuan harturik bi horietan dabiltzaneren ehuneko handi bat haur eta gazteek osatzen dutela, garrantzitsua iruditzen zait ohartzea pisu handia duela kirolak euskara normaltasunez erabiltzeko prozesuan.

### **5.7 Kulturgintza**

Kulturarekin loturiko ekintzetako batzuk, aisiaren barruan aipatu ditut (Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia), harreman zuzena baitute alor horrekin ere. Baina horietaz gain, badira Donostiako Euskararen Planak kulturaren barruan sartu dituen zenbait gai aipamena merezi dutenak.

Zinemagintzari dagokionez, euskarazko zinemaren eskaintza areagotu eta normalizatu nahi du, zinemagintzaz gain, euskarazko azpigituluak ere sustatuz.

Hutsune bat ere nabarmendu nahi dut, dena den. Euskarazko literaturak garai oparoa bizi duelakoan nago, baina zineman, kirolean eta beste hainbat alorretan gertatzen den moduan, ohitura falta dagoela iruditzen zait. Haatik, uste dut bultzada berezia behar duen alorra dela, eta faltan bota dut Donostiako Euskararen Plan Orokorrean euskarazko literatura sustatu beharri berariazko aipamenik ez egitea.

Bestalde, kulturari buruz hitz egitean, ezin dugu ahaztu 2016an Donostia Europako Kultur Hiriburu izango dela. Urte hori iritsi aurretik, hala ere, ekintza ugari egiten ari dira hiriburutza horren inguruan, eta nabarmentzekoa iruditzen zait euskarari ematen zaion lekua. Hala ere, Europako begi asko gure hirira begira egongo dira garaia iristean, eta benetako ahalegina egin behar delakoan nago.

### **5.8 Komunikabideak**



## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

Komunikabideen arloan, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak bi ildo jorratzen ditu, euskarazko hiri mailako komunikabideei dagokienez eta bestetik hiri mailakoak ez diren baina Donostian zabalkunde handia duten komunikabideei dagokionez.

Esan bezala, planak hiri mailako euskarazko prentsa, irrati eta telebistaren sorkuntza eta zabalkunde bultzatu nahi ditu. Egia esanda, baditugu zenbait komunikabide euskara hutsean lan egiten dutenak; esaterako, *Irutxuloko Hitza* eta *Gaztezulo* aldizkariak eta Ttan Ttakun Irratia. Lehen biek harpidedun-kopuru zabala dute, eta harpidetzez gain kioskoetan ere saltzen da. Ttan Ttakun Irratiak ere, pixkanaka, lortu du hedatuz joatea, nahiz eta traba ugariarekin egin duen topo 17 urteko ibilbidean. Udaletxearekin lankidetzan aritzeko saiakerek ezezkoa jaso dute urte askoan, baina azkenean lortu dute Udalaren laguntzarekin antena bat jarri eta seinalea hiri osora zabaltzea. Hala ere, oraindik ere bultzada behar duelakoan nago, instituzioen aldetik batez ere. Euskaraz hutsean sortzen diren hedabide horiez gain, hirian bada beste komunikabide garrantzitsu bat: TeleDonosti telebista-katea. Eduki aldetik kate honek ez du ospe handirik herritarren artean, baina edukiak alde batera utzita, euskararen erabilera hutsaren hurrengoa dela esan genezake. Webgunea bera gaztelania hutsean dago, eta egunean zehar ematen dituen saioetan albistegietan (gutxi bada ere) eta iragarki batzuetan soilik entzun daiteke. Faltan bota dut planean, egia esan, kate jakin honekin euskararen sustapenean lan egiteko asmoa.

Donostiako Euskararen Plan Orokorrak komunikazioen arloan zehaztutako bigarren ildoan dago, lehen aipatu bezala, hiri mailakoak ez diren baina Donostian hedapen handia duten komunikabideetan euskararen erabilera bultzatu eta indartzea. Batetik, garrantzitsua iruditzen zait Donostiatik kanpo euskara hutsean sortzen diren hedabideak kontsumitzeko ohitura sustatzea Donostiako herritarren artean. Aukera zabala dugu, askotarikoa, eta herritarrak aukera horien alde egitera bultzatzea funtsezkoa iruditzen zait (kultura arloan literaturarekin aipatu dudanez bezalaxe). Bestetik, hirian asko kontsumitzen diren gaztelaniazko hedabideekin lan egitea ere ezinbestekotzat jotzen dut, duten salmenta-kopurua kontuan hartuta euskarak bere tokia merezi baitu. Bat aipatzekotan, Diaro Vasco egunkaria datorkit burura. Egia da hasiera batean gaztelania

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

hutsez egiten zen arren, orain euskarazko artikulua bakan batzuk irakur ditzakegula egunkari horretan, baina hirian egunero-egunero saltzen den ale-kopurua kontuan harturik, garrantzitsua iruditzen zait euskararen erabilera areagotzeko ahalegina egitea.

### **5.9 Hizkuntza-baliabideak eta euskararen motibazioa**

Planean ikus daitekeenez, alor guztietan finkatutako helburuak lortze aldera, Donostiako Udalak hizkuntza-baliabideak eskaini eta sustatzeko zehaztapenak ezarri ditu. Ezin zen beste modu batera izan; Udala da hiria euskalduntzeko prozesuan laguntza eman behar duen lehen erakundea. Baina laguntza emateaz gain, garrantzitsua iruditzen zait baita ere euskararen kalitateari behar duen lekua aitortzea, eta hirian bultzatu nahi den euskalduntzea kalitatezkoa izatearen alde lan egitea. Gainera, iruditzen zait hirian euskarak bizi duen egoerari buruzko informazio egiazkoa zabaltzeak errealismo handia ematen diola Udalak euskararen aldeko lanean egiten duen lanari.

Motibazioari dagokionez ere, egoki ikusten dut planean bere lekua izatea puntu honek, alor guztietan aipatzen baita sentsibilizazio- eta motibazio-kanpainen beharra, askotariko helburuak lortzeko, eta behar horrek benetako lana ekarriko baitu.

### **5.10 Kaleko erabilera**

Ikusi dugun moduan, Donostiako Euskararen Plan Orokorrak hainbat gai lantzen ditu, zehaztapen handiz eta, nire ustetan, norabide egokian. Baina bada benetan faltan bota dudan gai bat: euskararen kale erabilera.

Oraindik osorik argitaratu gabe dagoen arren, Klusterrak 2011 urtean egindako Kale Erabileraren Neurketak dio, Donostian kaleko elkarrizketa guztien % 15,9 egiten direla euskaraz; elkarrizketen % 81,1 aldiz gaztelaniaz egiten dira, eta % 3, beste hizkuntzaren batean. Euskarazko elkarrizketak EAEko batezbestekoa baino altuagoak dira (% 13), baina, hala ere, lan handia dago oraindik egiteko alor horretan. Horrexegatik, faltan bota dut gai horrekin loturiko helburu, erronka eta ekintza zehatzik ez egotea

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

planean.

Gainera, badira euskararen kale-erabileran eragiteko lan egiten duten zenbait elkarte gure hirian: nagusiena, Bagera. Hainbat eta hainbat ekintza antolatzen ditu elkarte horrek urtero gai honekin loturik, eta iruditzen zait elkarte horien eta Udalaren artean orain dagoena baino elkarlan zabalagoa finkatu behar dela berandu baino lehen.

### 5.11 Udala

Gai hau jorrazteko, Donostiako Udalak plan zehatz bat landu du: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Donostiako Udalean. Indarrean duen beste planean ere (Donostiako Euskararen Plan Orokorra) administrazio publikoari alor bat eskaini dion arren, oso egokia iruditzen zait Udalak euskararen inguruan duen funtzionamendua hobetzeko plan zehatz bat diseinatzea, Udala delako (edo izan behar lukeelako) herritar guztion erreferentzia.

Udalaren helburu nagusia da Donostiako bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik benetako berdintasunerantz joatea, eta, esan bezala, Udalak izan behar du horretan lehena, hiriko gainerako eragileei konturik eskatu nahi badie.

Plan honetan egiten den gaien banaketaren inguruan, uste dut ondo egituratutako plana dela, Udalaren funtzionamenduan eragiten duten gai gehientsuenak hartzen baititu kontuan. Alor gehientsuenetan aipatzen da bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko beharra, eta herritarrekiko komunikazioak aipatzen direnean herritarren hizkuntza-aukera bermatzeko beharra ere finkatzen da. Oso egokia, eta, tristea bada ere, goraiatu beharrekoa. Hala ere, faltan bota dut Udaleko langileak euskara jakitera derrigortzen dituen punturen bat, nahiz eta langileen euskara maila hobetzeko ahalegina ezarrita dagoen. Gainera, Udalean egiten diren lanetan euskararen sortze-maila areagotzea ere oso garrantzizkoa iruditzen zait, euskara ez dadin itzulpenetarako hizkuntza soilik izan, eta euskaraz ez dakitenek ez jakite horrek sortzen dizkien zailtasunak senti ditzaten. Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera bermatzea ere ezinbesteko jotzen dut, argi gera dadin

## **Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak**

hirian bi hizkuntza direla ofizialak, eta maila bereko ofizialtasuna dutela.

Oro har, esan bezala, ondo egituraturako eta osaturako plana dela iruditzen zait, nahiz eta esperientziak irakatsitako eszeptizismoak hor jarraitzen duen. Izan ere, denok dakigu asmoak onak izanagatik ere, helburuak ez direla beti lortzen, eta ez lortze hori berdinen kaltetan izaten dela beti.

## 6. Bibliografia

## Sakontze egitasmoa: Donostiako Udalaren euskara-planak

- Euskararen Udal Patronatua:  
[www.euskaraz.net/donostia-soziolinguistika/euskara/datuak.html](http://www.euskaraz.net/donostia-soziolinguistika/euskara/datuak.html)
- Eusko Jaurlaritza  
[www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)
- Euskara Gipuzkoan  
[www.gipuzkoaeuskara.net](http://www.gipuzkoaeuskara.net)
- Bagera  
[www.bagera.net](http://www.bagera.net)
- Kontseilua  
[www.kontseilua.org/hizkuntzapolitika/](http://www.kontseilua.org/hizkuntzapolitika/)
- Donostiako Udala  
[www.donostia.org](http://www.donostia.org)
- Donostia Sustapena  
[www.fomentosansebastian.org](http://www.fomentosansebastian.org)
- Euskal Eskola Publikoa  
[www.euskaleskolapublikoa.eu](http://www.euskaleskolapublikoa.eu)
- Bildu  
[www.bildu.info](http://www.bildu.info)